

BUSKAL JAINA



cibarrero

50 URTE



EUSKAL JAIA EIBARREN **50 URTE**

Azala: **Patxi Argarateren** 1998ko Euskal Jairako karteletik

Diseinua eta maketazioa: ...eta kitto!

Testuak eta koordinazioa: J.L. Gorostegi

Inprimategia: Gertu (Oñati)

Lege Gordailua: SS 470-2015

ISBN: 978-84-606-7909-7

© Eibarko Klub Deportiboa



Euskal Jaiak mende erdia betetzen duen honetan, esku artean duzuen eta oroimenerako balio nahi duen liburu hau euskal kultura maite duzuen den-deno eskaini nahi dizuegu bihotzez.

Testuinguru politiko zehatz batean, 1965ean **Arrate Kultur Elkarte**a Euskal Jaia antolatzen hasi zenetik -orduan "fiesta infantil vasca" deiturikoa- eta bederatzi urte geroago **Eibarko Klub Deportiboak** erreleboa hartu zuenetik, esan dezakegu antolakuntzatik pasatu diren lagun guztiek xede bakarra izan dutela eta dugula: euskal kulturaren garapenerako eta biziraupenerako ekarpen xumea, baina tinkoa, egitea.

Nekez uler daitezke mende erdian zehar burutu diren ehundaka ekimen gogora ekarri gabe, era batean edo bestean, lanean ibili diren **erakunde zein norbanakoak**; gogora ekarri gabe gurekin dagoeneko ez daudenak, baina edizio bakoitzean oso presente ditugunak. Den-denontzako gure eskerrrik beroenak eta besarkada estu bat.

Eskerrak bereziki Arrate Kultur Elkarteari ekimenaren sorreragatik eta berau egonkortzeagatik, egindako lan guztiagatik eta gaur egun ere laguntzen jarraitzeagatik. Eta, zelan ez, eskerrik sakonekoenak Klub Deportiboari urte hauetan zehar bitarteko fisiko zein materialak eskaintzeagatik, adierazitako jarreragatik eta Kultura batzordean jarritako konfidantza osoagatik.

Ez dugu zalantzarik: egindakoak bere fruitua ematen du, eta gure kulturak eta honen ardatza den euskarak jende askoren bihotzean ohorezko tokia izan dezan ekarpen polita egin dugu 50 urtetan. Ea etorkizun hurbilean eta orain maiatzaren azkenengo asteburuan bizi izaten duguna egunero bizi ahal izateko aukera eraikitze gaia garen.

Segi ba, gure Kultura eta Euskararen alde zuen ekarpentxoak egiten, guk egingo dugun moduan; eta, batez ere, disfrutatu, esku artean duguna altxor bat da eta.

Klub Deportiboko Kultura Batzordea

Aurkibidea

Sarrera	3	2000	101
Aurkezpena	6	2001	102
Aurrekariak / Lore Jokoak	8	2002	104
Euskal Jaiaren bilakaera	10	2003	108
Lehen kartelak	12	2004	114
1965	13	2005	117
1966	25	2006	121
1967	34	2007	124
1968	39	2008	131
1970/1976	44	2009	134
1977	47	2010	143
1978/1980	56	2011	150
1981/1983	58	2012	159
1984/1989	63	2013	174
1990	65	2014	184
1991/1993	68	Lehen urteak	194
1994	74	Azken urteak	195
1995	83	Kezka	196
1996	89	Azken kartelak	197
1997	91	Aurtengo egitaraua	201
1998	94	Eskertzak	203
1999	99		

Aurkezpena

Merezi dute, bai, gure eskerrik beroena 1965ean gure herrian Euskal Jaia antolatzen hasi ziren haiek; eta baita, ordutik hona, ekitaldieie eusten jakin izan dutenek. Mende erdi honetan denetarik izan da: hasierako arazoak egoera politikoarengatik, Eibar goi mailako plaza bihurtu zuten urteak (maiatzeko azken asteburua kanpoko dantza taldeek ere gordetzen zuten, gurera etortzeko) eta, Euskal Jaiari nekez eutsi zitzaion urteetatik pasata, gaur egun bizi duen egonkortasuneraino heltzeko.

Liburu eta dokumental honetan gure herriak urte guzti hauetan bizi izandakoaren informazio xumea eskaini nahi izan diogu hartzaileari: askok euren burua nekez kokatu ahal izango dute aurreko mendeko erdialdeko urte haietan;

beste askok, aldiz, bizi izan zutenen sasoirra bueltatu eta ordutik bestea beste begi batzuekin ikusteko aukera izango dute.

Euskal Jaiak gure herrian bizi izan duen bilakaera ikertzetik urruti izan dira gure asmoak, baina bai hartu dugula horren testigantza jasotzeko eta zuenganatzeko ardura. Arlo grafikoari erreparatu diogu gehienbat, Eibar eta eibartarrak protagonista bihurtuta. Horretarako, hainbat argazkilariren kolaborazioa izan dugu, liburuaren orrialdeak dotoretzeko balio izan duguna.

Esku artean duzuen proiektu hau Eibarko Klub Deportivo Kultura Batzordeak, gaur egungo Euskal Jaiaren antolatzaileak, bultzatu badu ere, berez herriko beste elkarte

batek, Arrate Kultur Elkarateak, izan zuen gure herrian Euskal Jaia abian ipini zuena. Sasoi hartako oztopoei aurre egin ez eta euskararen aldeko jarrera argiarekin, piztu zuten 50 urtetan iraun duen metxa. Ez hori bakarrik, urte gutxitan Eibarko Euskal Jaia erreferente izatera pasatu baitzen eta, Euskal Herrian urtero antolatzen ziren Euskal Jaien artean, indar eta proiektio handiena izatera pasatu zena.

Egia esan, ez da errazegia izan hasierako urteetako informazio jasotzea. Batez ere, antolatzailleek egiten zutenari ez ziotelako halako garrantzi berezirik ematen. Egin egiten zuten. Liburu eta dokumental honek balioko du, behintzat, ibilbide hori gorde eta ondorengo Euskal Jaien oinarria izan direnak modu batean edo bestean presente izateko.

Horrelako ospakizun bereziek aukera ematen digute ere orain arteko ibilbidea baloratzeko eta horrelako ekitaldien inguruan hausnartzeko, hemendik aurrerako urratsak onbidatzeko asmotan.

Jakina, urte guzti horietan asko eta asko izan dira proiektuarekin aurrera jo dutenak, une honetara iristeraino. Izen propio askorik ez dugu islatu lan honetan, baina zor diegun errekonozimendua jasota gera bedi. Guztiak beharrezkoak izan direlako, hemendik aurrerakoan ere denon arteko alkarlana beharrezkoa izango den moduan inoizko Euskal Jai parte-hartzaileenak lortzeko helburuarekin.


Jose Luis Gorostegi

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte

Aurrekariak

Euskal Jaiaren lehen bultzatzailea Anton Abbadia izan zen. Bere dirua jarri Lore Jokoak antolatu zituen. Helburua euskal nortasuna aldarrikatzea eta kaleratzea zen. Lehenengo urteetan kutsu folklorikoa zuen. Iparraldean ekin zioten joko horiek prestatzeari eta gero hegoaldera pasatu ziren eta Eibarri ere egokitu zitzaion mende hasieran antolaketa lana.

Gerra Zibilak etena sortu zuen eta frankismoaren azken urteetan berreskuratu zen Euskal Jaia antolatzeko ohitura. urte horietan errebindikazio tresna bihurtu zen. Azken urteotan, berriz, alde errebindikatibo hori galdu egin du eta berriro izaera folklorikoa irabazi du



Antxon Narbaizaren liburuaren azala.

Lore Jokoak Eibarren 1908an

Mende hasieran Gipuzkoako Diputazioak Lore Jokoak antolatzea erabaki zuen. Hortaz, urte bakoitzean herri bati tokatzen zitzaion ospakizuna. 1908an Eibarri tokatu zitzaion eta sekulako jaia izan zen, irailaren 4tik 7ra iraun zuena: dantza lehiaketa, ganadu azoka, herri-kirolak, musika banden arteko txapelketa, karrozak, bertsoak, aurrekuak eta beste ekitaldi batzuk izan ziren. Gregorio Mugicak Eibarko monografia historikoa kaleratzeko lehiaketa Lore Joko horietan irabazi zuen.

Horrez gain, Lore Jokoak zirela-eta, industria eta arte erakusketa zabaldu zuten eibartarrek. Erakusketa horrek garrantzi handia izan zuen, Gipuzkoan lehenago antolatutako beste euskal jaietan hori ez zelako egin. Erakusketaren ospeak Alfonso XIII.a Espainiak o erreega ekarri zuen Eibarrera.



1966-V-16. Arantza Larrañaga, Mireia Biteri, Blanqui Aginaga eta Maite Narbaiza Deban.

Debako esperientzia

Lehenengo aldiz Deban egin zen Euskal Jaia. Bertan izan ziren eibartar batzuk laguntzen eta, denborarekin, Eibarrera ekartzen saiatu ziren. Dantza eta txistu ikastaroak antolatu eta, jende askoren laguntzari esker, lehenengo kaikuak egin zituzten. Hainbat tirabira izan ziren, baina lanari ekin eta karroza eta guzti ospatu zuten lehenengo Euskal Jai hura. Debako Euskal Jaiaren bigarren urtean bertan behera laga zuten eta hirugarrenean militarrak sartu ziren.

1964an Deban Oargi elkarteak antolatu zuten I. Euskal Jaia. Hiru hamarkadatan isildutako jaia berriro kaleratu zuten, euskal nortasunaren aldarrikapen ia politiko bihurtuta. Sinbologiaz betetako ekitaldi harek errepikapena izango zuen eta, 1965ean, Deporreko dantzarien bidez ordezkari izan zuten eibartarrak. 1966an, baina, Gobernadore Zibilak debekatu egin zuen ospakizuna. Maite Aranberri eta Julio Sarasua bertan izan ziren, beste batzuekin batera, goizetik herria poliziaz hartuta zegoen Deban.



Jesús Zuluaga Araquistain, Presidente de la SOCIEDAD CULTURAL Y RECREATIVA ARRATE, entidad constituida para el fomento del nivel cultural, social y recreativo de sus socios, a través de la Comisión de Folklore Vasco, a V., con el debido respeto:

EXPONE:

Que la arriba expresada SOCIEDAD presentó el pasado día 23 de Marzo una instancia solicitando el necesario permiso para la celebración de un festival infantil de carácter regional, y que ahora refrenda mostrando el programa de actos establecido para el día 30 de Mayo, fecha fijada también para su celebración:

- A las 9 Pasacalle por los chistularis.
- A las 9,45 Concentración de todos los niños en la Plaza del 18 de Julio.
- A las 10 Misa en lengua regional en el Frontón Astelena
- A las 11 Pasacalle de los niños con desfile de carrozas (Itinerario: Plaza del 18 de Julio, Calbetón, Eidebarrieta, San Agustín, M^a Angela, Avda. Generalísimo, Dos de Mayo, Plaza 18 de Julio).
- A las 12 Festival regional en el Frontón Astelena, tomando parte los niños. (Coros, baile de aurreku, bersolaris, partido de pelota, todo a base de niños)
- A las 2 Hasta esta hora, grupos infantiles de danzas vascas bailarán repartidos en diversas calles de la villa.
- A las 4½ Concurso de baile suelto regional. A la misma hora, los grupos de danzas citados volverán a actuar en diversos lugares de la villa. Después romería.

Todos los actos quedarán finalizados a las 7,30 de la tarde, aproximadamente.

por este motivo, a V.

SUPLICA:

Dé por presentada esta solicitud y nos facilite la autorización necesaria que le pido.

Favor que espero alcanzar de la buena disposición de V. cuya vida pido a Dios guarde muchos años,

Eibar, 7 de Mayo de 1965

SOCIEDAD CULTURAL RECREATIVA

ARRATE

Presidente y

J. M. Urdondo

En ausencia, Pdo. Juan M^o Urdondo (Secretario)

SR. ALCALDE-PRESIDENTE DEL ILUSTRISIMO AYUNTAMIENTO DE EIBAR.

EIBAR

1965-V-7. I. Umeen Euskal Jaia egiteko eskaera. Jesús Zuloaga Sociedad Cultural y Recreativa de Arrate-ko presidenteak aurkeztua eta, bere izenean, Juan Mari Iriondok sinatutakoa. Eibarko Udal Artxiboa / Sig. 320.01

aprobado por la Comisión Municipal Permanente en sesión del día 14 de Mayo de 1965



1960ko hamarkada eta euskal kulturaren loraldia

1952an jaiotako SCR Arrate elizari eta frankismo sasoiko mugimenduei lotuta sortu zen, Congregación de Jóvenes de Arrate tarteko. Hala ere, eibartar askok ematen zioten babesa, Kulturala zelako Eibarren kultura sustatzeko bide bakarra eta bazegoelako, bere babesean, zentsura gainditzeko modua. Euskara, hala ere, oso bazterreko zen, ak-tetan-eta “lengua vernácula”, “vascuence” eta “lengua regional” moduan agertzen baita. 1962an lokala erosi eta indarra hartzen joan zen Arratea. Horrekin batera, gazte talde zabala sartu zen lanera 1962 eta 1964 artean dantza eta txistuaren inguruan (batzuk dantzari-ohiak izandakoak, Gregorio Santa Kruzekin umetan ikasitakoak) eta euskal kultura zabaltzeko gogoz. Hasiera batean, euskarako klaseak ematen eta euskarazko denetariko ekitaldiak antolatzen hasi ziren; gerora, dantza eta txistu klaseak ematen. 1965ean, esaterako, 70 lagun zeuden euskara ikasten, Santa Kruzek dantza erakusten zuen, eta Juan Larrinagak eta Maite Aranberrik 64 ume zituzten txistua ikasten. Kulturalean zeuden batzorde askotan euskara sartzten saiatu ziren, baina ez zegoen aukerarik elkarlanerako. Gehiago oraindik: berez Comisión de Cultura Vasca zena “la Comisión del Txistu” izendatu zuten eta baita txokora baztertu ere.

Euskal jaialdiak “Festival vasco” bat antolatu zuen, garaiko giroan. Arrakastatsua izan zen eta, hori handitzeko asmoz eta giro horrek bultzatuta, Euskal Jaia antolatzea erabaki zuten. Baina, Deban nagusiena zen moduan, hemen umeen euskal jaia antolatu zuten, haurrak, folklorea eta euskal kultura batuko zituena. Antolaketa ez zuten arazo handirik izan. Besteak beste, haurrena zelako, Kulturalaren babesa zutelako, Eibarko giroa ere nahiko lasaia zelako, familia ezagunetako jendea zegoelako arduradun, eta industria gizonen eta tailardunen seme-alabak ere inplikaturik zeudelako. Debakoa debekatu egin zuten 1966an, eta beste herri batzuetan ere arazoak izan zituzten. Baina Eibarren ez, nahiz-eta 1969an ez zen egin (ez zuten debekatu, “toque de queda” edo horrelako zeozer indarrean izan bazen ere). Abertzaleen artean ere batasun handia zegoen (denak elkartuta, etsai beraren aurka), eta horrek ere indartu eta erraztu egiten zituen elkarlana eta antolaketa.

Eibarko Euskal Jaia lehenengoetakoa izateaz gain, ezagunenetakoa izan zen. Herri osoak dena ematen zuen: zerbait faltan somatzen zuen herriak eta horrek bete zuen hutsune hori. Kulturalak zuen ardura, baina Eibarko Klub Deportiboko ordezkariekin batera antolatzen zituena Euskal Jaiak: Santa Kruz (ordurako jubilatuta eta berriro Deporren laguntzen), Jose Luis Perez Sarasketa, David Arriola, Juan San Martin... Klub Deportiboa herritarrago eta euskaldunagoa zen, mendiarri eta kirolari lotuagoa, batez ere. Kulturala kaletarragoa zen eta kultur arloan jantziagoa, nahiz eta askorentzat Kulturalekoak “señorito eliztarrak” ziren. Lehenengo hiru urteetan Sagalá artistak egin zituen kartelak. Eta laugarren urtean (1968) aurreko hirurak batu eta Kulturalaren logotipoa gehitu zioten, kartela lau zatitan banatuz. Hasierako lantaldea gutxinaka nagusituz eta ezkonduz joan zen, eta hasierako erantzunkizunak lagatzen. Arazo politikoengatik ere alde egin behar izan zuten beste batzuek. 1969-70 bitartean utzi zuten taldea lehenengoek, eta 1972tik aurrera beste lantalde bat sartu zen.

Hasierako antolaketa, Ugarteburu eta Zubiaurre ziren buruak, nagusienak eta esperientziadunak. Diruzaina Mila Larramendi izan zen, bankuko langilea zela aprobetxatuta. Bulego lana egiteko (kontaktuak, erakundeekin tratua, txostenak, prentsa, itzulpenak) Amatiño zegoen. Umeen logistika guztian Maite Aranberri, Maite Narbaiza, Mireia Biteri, Arantza Larrañaga eta Blanqui Aginaga jardun zuten, Aranberri koordinatzaile zutela. Herriko indarrak mugitzea, soziedadek antolatzea, dirua batzea... eragile, logistika eta antolaketa lana Julio Sarasuak eraman zuen. “Panpo” Hormaetxea baserri munduarekin lotzeko ardura hartu zuen. Enpresariekin harremanak (dirua lortzeko, bestak beste) Garatek eta Zubiaurrek landu zituzten. Mikel Larrañaga, Arantza Larrañaga eta Maite Narbaiza dantzarien arduradun izan ziren; eta Santa Kruz eta Maite Aranberri txistu irakasle. Eurekin batera, beste hainbat laguntzaile jardun zuten fin lanean: Alberto Lopez, Amaia Aseginolaza, Iñaki Sarasketa, Arrate Uriguen, Isabel Zorrakin, Miguel Zulaika, Xabier Zabaleta, Arrate Insausti, Sabin Basterrika...

1924an sortutako Eibarko Klub Deportiboan, bestalde, 1958an Kezka aldizkaria sortu zuen Juan San Martinek, Deporrek “Comisión cultural”-aren barruan. Gregorio Santa Kruz dantza-maisu izan zen 2-3

urtez, bertatik joan aurretik. Patxi Beitiak hartu zuen haren lekukoa, Soralezetik etorrita, eta handik gutxira Perez Sarasketa ekarri zuen berekin, azken hau Soralezeko txistularien arduraduna zenean. Deportiboan dantza eta txistu klaseekin jarraitu zuten; hori bai, nagusiekin. Horixe izango zen Kezka Dantza Taldearen sorrera, 1970 inguruan hartutako izenarekin. Bitartean, Gragorio eta Larrinaga txistularia umeekin hasi ziren Arrate Kulturalean.

1970eko hamarkada gorabeheratsua eta trantsizio garaia

1973 eta 1980 urteen arteko garaia gorabeheratsua izan zen, herri guztietan zatiketak eta banaketak izan zirelako eta, baita, talde berriak sortzeko unea izan zelako. Kulturalaren barruan ere tirabirak izan ziren, jendea bazegoelako euskal-jai sozialagoak nahi zituena, eta ez hain folklorikoak. 1973tik 1977ra gertatu zen antolaketaren traspasoa Kulturaletik Deporrera: lehenengo bien artean antolatu zuten eta, ondoren, 1977etik aurrera Klub Deportiboak hartuko zuen ardura. Dantza eta txistu taldeak ere urte batzuk lehenago pasatu ziren Arra-
tetik Deporrera. Deportiboan Iñaki Osoro, David Arriola eta Jose Luis Perez Sarasketaren inguruan osatutako taldeak antolatu zituen hurrengo Euskal Jaiak. 1979ko urtarrilaren 19an egindako batzarrean Perez Sarasketak Deportiboa laga zuen Amalur bere akademia sortzeko. Akademia horri 600 ume izatera heldu zen.

1980ko hamarkadan Deporreko dantzariak arduradun

1979tik aurrera Euskal Jaiaren antolaketa Kezka dantza-taldearen esku geratuko da neurri handi batean: arduradun guztiak Sarasketarekin ikasitakoak ziren. Urte horretatik 1985era arte, J.M. Andonegi, Ana Maiagarai, Frontaura "Tofo" ... izango dira antolatzen; 1986tik 1992ra, bestalde, Jon Lopez de Gereñu "Piti"-k, Iñigo Gerrak eta Alberto Alkobak hartuko dute haien lekukoa. 1990ean osatu zen 25. urteurrena, esaterako, azken horiek antolatu zuten. Urte horretatik aurrera lantaldea txikitzen joan zen, indarra txikitzen... eta erreleboa eskatu zuten Kezkako dantzarien gurasoen artean. Hori horrela izanda ere, 80ko

hamarkadako lantalde horretako kide askok oraindik urtero jarraitzen dute laguntzen Euskal Jaiko kontuetan, ez dute-eta harremanik galdu urteroko hitzordu horrekin. 1993an Kezka Dantza Taldeko ardura ere lagako du aurreko lantaldeak, eta Oier Araolazak eta Aresatz XXXX-ek hartuko dute zeregin hori. Hortik aurrera Euskal Jaiaren ardura eta dantza-taldearena banatuta egongo dira. Dantzariak gehiago arduratuko dira eguneroko lana egiteaz eta dantza-taldea zaintzeaz.

1990etik orain artekoa

Alkobak eta Gerrak 1988an Kezkako dantza-ikasleen gurasoei egindako deiak hamar bat gurasoen erantzuna jaso zuen. Hor sartu zen Fernando Abanzabalegi eta, talde polita osatu bazuten ere, gutxinaka jendea nekatzen hasi zen eta, aldi berean, taldea makaltzen. 1992tik aurrera Abanzabalegik hartu zuen erantzukizun nagusia, aurrekoek (Gerra, Piti, Alkoba...) tarteka laguntzen bazioten ere. 90. hamarkadan dantzari eta gazte batzuk sartu ziren antolaketa lanetan: Leire Narbaiza, Enrike Sosola, Igor Unanue, Asier Serrano, Idoia Uribarri... Hainbat urtetan jardun ondoren, nekea nagusitu zen hor ere. Eta 1998an Mariano Luke hasi zen laguntzaile moduan, handik gutxira ardura guztiak hartzeko eta gaurdaino lan horri eusteko.. 1990 eta 2000 urteen arteko hamarkadan Euskal Jaiak beherakada izango du. Modak aldatzen doaz: karrozak galduko dira 1985aren inguruan, 1995ean beste ahalegin bat egingo bada ere; kanpoko umeak ere gero eta gutxiago etorriko dira, eta 2006tik hona ez dira ekarriko.

Hala eta guztiz, XXI. mendearekin batera indartzen joan da berriro Euskal Jaia. Egitaraua asteburura mugatu da, ikuspegi zabalagoa hartu du eta egitaraua guztiz egonkortu da: ekitaldi kulturala, azoka, kantu-afaria, herri-bazkaria, larrain-dantza, Ezpalak... finko bihurtu dira urteroko egitarauan. Herritarren parte-hartzea ere handitzen joan da, azken hiru urtiotako soziedadeen inplikazioak erakusten duenez. Aurten, gainera, bazkaria eta afaria bertoko produktuekin prestatuko dira. Eta artisau eta baseritarren azokaren barruan jokatu diren herri-kiroletan jendeak ere parte hartu ahal izango du. Euskal Jaia inoiz baino eskurago izango du, beraz, urrezko ezteiak ospatzen dituen honetan.

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte


Kartelak

Lehenengo 3-4 urteko Euskal Jaietako kartelak Sagala artista eibartarrak egin zituen. Ondoren hil egin zen eta, 5. urtean, aurreko urteetako kartelekin atera zen bosgarrena, bere omenez.

Amatiñok dioenez, "lehen aurretiazko zirriborroa Julio Sarasuari eta bioi, proposamen gisa, aurkeztu zigun aitzinasmoa. Testua ez, baina marrazkia behintzat, lehen euskal jairako erabili zen. Testua, segururik, artistak berak borondaterik onenaz osagarri gisa proposatutakoa baino ez da. Ez dut uste, inondik ere, *loraila* eta horrelakorik jarriko zenik, are gutxiago jakinda hurrengo urtean, 1966an, Sagalak berak estilo beretsuz egina, *mayatza* aipatu zelarik".



1965ko Lehen Umeen Euskal Jairako Sagala artista eibartarrak aurkeztu zuen zirriborroa. Ez da irarki-kopia bat, paper orlegi gainean erantsitako irudi bakuna baino, ebakin gorri-zuri-beltzez egina.



1966ko kartela, Sagalak berak estilo beretsuz burutua.

I. Euskal Jaia (1965)

Maiatzaren 30ean, Umeen Euskal Jaia ospatu zen. 09.00etan, txistularien kalejira; 09.45etan, umeen kontzentrazioa Plaza del 18 de julio-n; 10.00etan, meza hizkutz "erregionalean" (Astelenan egitekoa zen, baina azkenean parrokiara eraman zen, eta jende asko geratu zen kanpoan); 11.00etan, kalejira karrozekin plazatik San Agustineraino eta buelta; 12.00etan jaialdi erregionala Astelena frontoian (abesbatzak, aurraskua, bertsolariak, pilota, dena umekin); 14.00etan, taldeek hainbat auzotan dantzatu zuten; eta 16.30etan, dantza solte erregionaleko lehia-keta egin zen, beste talde asko auzoetara joaten zen bitartean. Jaialdia 19.30etan amaitu zen.

28 taldeko 700 umek etorri ziren kanpotik, hemengoekin 5.000tik gora lagun desfilatzeke. Familia asko geratu ziren umeak jaso barik; beste batzuk, ordea, umeei itxaroten, azkenean batzuk ez zirelako etorri.



Maite Aranberri, Antonio Sarasua eta Julio Sarasua, lehenengo edizioko antolatzaileak.



1965. Plazaola

1965. Plazaola





1965. Plazaola



Lacuesta



Lacuesta

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



Lacuesta



Lacuesta



Lacuesta



Lacuesta

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



Lacuesta



Lacuesta

Lacuesta



Lacuesta

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



Lacuesta



Lacuesta



Lacuesta



Lacuesta

Miguel Angel Astiz-ek La Gaceta del Norte-n idatzitakoa Eibarko I. Umeen Euskal Jaiari buruz

Lezo, Bakio, Bilbo, Soraluze, Donostia, Galdakao, Elgeta, Elgoibar, Deba, Ondarroa, Deustu eta Lutxanatik etorritako dantza taldeekin egin zuten kalejira Eibarkoek. Txistulariei dagokienez, Bilboko Udal Akademia, Mundakako Gazte-Zar Taldea, Villarrealako Udala eta Barakaldoko Luis Torreko ordezkariak izan ziren. Hor izan ziren ere ekitaldian bere lan zehatza zuten Zarautzeko umorelariak, bertako Abesbatza, bertsolariak eta harrijasotzaileak. Jantzien artean, mikelleteak, aspaldiko esne-saltzaileak, hartzainak... denetarik zegoen Julio Sarasuak bultzatutako ekimenean. Karrozen sariak honela banatu ziren: 1.a "Ezkontzia", Aldatzeko euskal ezkontza; 2.a "Arrantzaleak", Arrate Kulturaleko arrantzale mundua; 3.a "Ikastoka!", Ikastolarena; 4.a Itxulanbru elkartearena; 5.a "Euskal Herriko fruituak", Karmeldarrena; 6.a "Gipuzkoa", Azitaingo La Sallerena; eta 7.a "Borda'ko pilota jokoa", pilotaren gaiarekin. Umeekin betetako Astelenako jaialdian, Zarautzeko taldeek Etxabe anaiak bertsolari gazteak aurkeztu zituzten lehenik, abesbatza bikaina ondoren eta gero umoristak. Herri dantzekin amaitzeko aurrekuak eta Agur Jaunak-ek ezarri zioten gaina. Angelusaren errezoa apaiz jantzitako ume batek egin zuen, bere txano laupuntako eta otoitz orduen liburuarrekin. Gero kaleetan dantzatu zuten guztiak.

II. Euskal Jairako Revista Eibar-ko Diñuenen atalean jendea prestatzen hasteko argitaratutakoa:

Merzedarixen ikastetxeko rondalliak euskal kantu txorta polita ikasten dihardu eta euren rondalla-jantzi apartekuekin urtengo ei dabe. Karrozen desfilia ikusgarrixa izango ei da. Euskal liburu eta diskuen ferixiak ustebako espektaziñua sortu dau.

Ume asko dira euren etxietan bai mezia eta bai mezako kantuak euskeraz jarraitzen ikasten dihardutenak.

Kanpotik etorriko diran umiak igez baiño gehixago izango ei dira eta, aurtan be, bihar-biharrezkua izango da etxeoandren laguntasuna.

Amaya Teatruan emongo dan euskal teatruan eta Arratian bertan egingo diran euskal jaixetan jende asko izango ei da, ba sarreren eskabidia hasitta ei dago.

Ba ei dira gurasoren batzuek, eta aitxitxa-amamak be bai, euskeraz eskribitzen ikasten hasi diranak Umientzako Ipuin Sariketan parte hartzeko asmuarekin, milla duruak dirala-eta.

1966. Plazaola



1966. Plazaola



1966. Plazaola



Euskal Jaia Eibarren - 50 urte

1966. Plazaola



1966. Plazaola



1966. Plazaola



1966. Plazaola



1966. Plazaola



1966. Plazaola



II. Euskal Jaia (1966)

Iñaki Linazasorok "Umeen Euskal Jaiaren" inguruko hitzaldia eskaini zuen. Maiatzaren 19an, Asentzio egunean, txistularien kalejirarekin hasi zuten; 10.00etan, San Andres elizan, herriko agintariak buru zirela, Meza Nagusia egin zen euskeraz; jarraian euskerazko liburu eta diskoen azoka zabaldu zen, 20 bat stand-ekin, lau egunetarako; eguerdian, jaia egin zen umeekin. Arratsaldean, pelikula eman zen Kulturalean eta, ondoren, umeentzako ipuin sariketa erabaki eta 5.000 pezetako saria eman zitzaion Salbador Garmendia irabazleari (ipuinak euskeraz idatzitakoak izan behar ziren, herrian jaso gabeak eta folio batetik laurako tartekoak, makinaz idatzita bi lerrotara). Hobeto irakurri zutenentzat ere izan zen saririk, Peli Aldazabalen omenez.

Maiatzaren 20an, Debako ume taldeek euskal olinpiada egin zuten Untzagan; Andoaingo Larramendi taldeak Cassonaren "Txalupak jaberik ez" antzestu zuen Teatro Amayan; eta kantu saioak eskaini zituzten. Hor izan ziren Jose Antonio Villar gitarradun euskal kantaria

bere taldearekin, Karlos Mungia kantari trebea, Etxaniz eta bere debuta egin zuen Klub Deportiboko Ego zortzikote edo otxotea.

Maiatzaren 21ean, 17.00etan ume euskalduneri buruzko hitzaldi berezia izan zen Kulturalean, Herrero Tejedor maisuak emanda. Gero, inguruko herrietako txistulari gazteekin Untzaga plazan jaia egin zen. Eta bi pelikula eman ziren: "Pelotari" eta "Alquezar".

Maiatzaren 22an, Umeen Euskal Jaia ospatu zen. Untzagako Plazatik prozesioan Karmengo parrokiara joan ziren eta, han euskerazko meza entzun ondoren, karrozen kalejira hasi zuten. Sei karroza izan ziren guztira, denak sarituak: 1. saria "Sardaundeixa"-rentzat izan zen, Itxulanbruko sagardotegiarentzat; eta ohorezko aipamena Armeria Eskolarentzat izan zen, herriko familiaren irudikapenarekin. Arratsaldean, 17.00etan dantza saioa izan zen eta, amaitzeko, txistulari guztiek "Segurako alborada", "Gernikako arbola" eta "Agur Jaunak" interpretatu zuten.





1966. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO4057



1966. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO4983

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1966-V-22. Maite Aranberriren argazki-bilduma



1966-V-22. Maite Aranberriren argazki-bilduma

1966-V-22. Maite Aranberriren
argazki-bilduma



1966-V-22. Maite Aranberriren
argazki-bilduma

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



1966-V-22. Maite Aranberriren argazki-bilduma

Untzagan Espainiako banderak edo "pipar potiak" deitutakoak, grisak edonon eta, dantzarien artean, euskal kutsua kentzeko edo, tuna batek irten zuen. Poxpolinen arkuetan, baina, kolore gorri-zuri-berdeak, zentsura gainditu zuten ikurrina bakarrak.



1966-V-22. Maite Aranberriren argazki-bilduma



1966-V-22. Maite Aranberriren
argazki-bilduma



1Etxe batean hartutako haurrak otorduan. 966. Juan San Martín. AGG-GAD_ISMO0634

III. Euskal Jaia (1967)

Maiatzaren 4an, 09.00etan Arrateko txistularien kalejira egin zen; 10.00etan, meza nagusia agintariekin San Andresen; 12.00etan, Deporreko eta Arrateko dantzarekin, Trikitriki Txapelketa (Dantza solteko I. lehiaketa) eta Arrate Elkarteko txistularien emanaldia; 16.30etan, txistulariak Irungo Atsegiña taldearen bila joan ziren; eta 17.00etan, irundarren "Iñude eta Artzaiak" taldeak saioa eskaini zuen. Maiatzaren 5ean, 19.30etan umeendako zinea eskaini zen Arrate antzokian; eta 22.15etan, "Itxo edo ezkondu" lana erakutsi zuen Bergarako Ernai antzerki taldeak. Horrez gain, "Euskal jakintzaren arazoak" hitzaldia eskaini zuen Juan San Martinek.

Maiatzaren 6an, 15.00etan umeendako zinea egon zen Arraten; 16.30etan, Tafallako txistulariak etorri ziren eta, Arratekoekin batera, estazinora jo zuten Zarautzeko Izarra taldearen bila, guztiok elkarrekin Untzagaraino kalejira egiteko; 17.30etan, alardea egin zuten txistulariek; 19.30etan, musika jaialdia izan zen, Julian Lekuona, Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Benito Lertxundirekin, Za-

rautzeko Ikastolako umeekin batera, handik hiru ordura errepikatuko zena Astelena frontoian, hor Bilboko San Anton Orfeoa lagun izan zutela.

Maiatzaren 7an, 09.00etan ume guztiak bildu ziren Untzagan Karmengo parrokiraino joateko; 10.00etan, meza laburra ospatu zen, umeendako; 11.30etan, Barakaldo kaletik Untzagarainoko karrozen desfilea egin zen (zortzi karroza izan ziren: Izarra Gazte Kluba, Apurtu-Arte kuadrila, Itxulanbru kuadrila, Alfako eskolak, SCR Arrate, Ikastola, Sagrado Corazon-eko Ikastetxea eta Karmengo parrokia, Aldatzeko Probidentzia ikastetxeko estampa batekin); 12.30etan, talde guztiak bildu eta dantzari eta txistulari txikien alardea egin zen: saio horretan Aritz Dantza Ikurriñaren Zortzikoa - Biñako eta txakarranka dantzatu zuten. Amaitzeko, Segurako Alborada, Gernikako Arbola eta Agur Jaunak. 16.30etan, taldeek ekitaldiak egin zituzten auzoetan; eta 18.00etan, Untzagan, Biltzarra, Angelus-a eta Agur Jaunak. Aurretik Zarautzeko harri-jasotzaileak aritu ziren.



1967.



1966. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO4057




1967.



1967. Agirresarobe

1967. Agirresarobe





1967.

Revista Eibarren argitaratutako kexa, Isasik sinatuta

Euskal jai hontan, erderaz egin da ehuneko larogeitan umien artian. Nik uste dot Euskal jaixa deitzen badetsagu, lehenengo gauzia izan bihar litxakiala, beiñipein egun horretan, erregutu daneri gure hizkuntza erabiltzia. Neri paparriantxarteltxo bat ipintzera -jaixetako gastuak ordaintzeko- neskato bi etorri jatazen. Itxuraz Eibarko alabak. Emon neutsenian nere dirua eta galdetu: – Euskeraz badakizue?, erantzun zidaten: – No, somos de Eibar. Itxura danez, pentsatu eben nik galdetu netsela ia kanpokuak ziran. Gertaera horrek oso atsekabetu ninduan. Gatxa ez litzake izango hamendik aurrerako Umien Euskal Jaixetarako erregutzia daneri, egun horretan gure ohi-ttura, istori ta jantzixak gorazten dittuguzen egunian, danen gain dakagun gure hizkuntza erabiltzen saiatu gaittezela. Horrela, Eguna bere izenaren jabe izango litzake.

Miguel Angel Astiz-ek La Gaceta del Norte-n idatzitakoa Eibarko III. Umeen Euskal Jaiari buruz

Zortzi karroza izan ziren. Desfilea zabalzen Villarrealen txistulariak, mini-agintariak, Arrateko dantzariak, Aldatze ikastetxeak aurkeztutako Nafarroako Salazar eta Erronkari bailaretako tipo eta trajeekin jantzitako estanpa. Karrozetan Izarra Gazte Klubak, Mertzedarietako eta La Salleko ikastetxeak, Ipurua Eskoletako umeek, Alfa enpresak, Arrate Kultur Elkartek, Ikastolak, Jesusen Bihotz Santuaren ikastetxeak eta Karmengo parrokiak aurkeztutako lanak ikusi ahal izan ziren. Ikastolak irabazi zuen 1. saria, "Sukaldea" bere lanarekin, eta Alfa bigarren sailkatu zen, "Basarri"-rekin. Euskal pintore bohemioak, pilota, dantza, olagizonak, abestiak... errepresentatu ziren. Euria egin zuen eta, 1.200dako bazkariak gordeta baziren ere, azkenean 500 ume bakarrik ziren eta etxe umiletara joatea erabaki zen. Erromeriak errezzatzeko ordura arte iraun zuen: biribilketak, kalejirak, jotak, porrusaldak... helduak ere dantzari.

IV. Euskal Jaia (1968)


Aurreko urteetakoekin alderatuta, are dantzari eta parte-hartze handiagoa izan zuen. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 26 taldek hartu zuten parte. Karrozen lehia-keta izan zen. Aktuazioan, Urretxindorrek, Estitxu, Idoia Garmendia eta Argoitia Anaiak.

1969an ez zen Euskal Jairik egon



1968, M^a Angela kalean. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO40640

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1968.



1968.





1968.

1968.



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



Kezka Dantza Taldea



Kezka Dantza Taldea



Kezka Dantza Taldea

Kezka Dantza Taldea




VI. Euskal Jaia (1971)

Hitzaldiak izan ziren, umeen munduarekin lotutako gaiekin: "Desarrollo mental del niño hasta los 10 años" eman zen martitzenean. Eta barixakuan, Andu Lertxundik eta Manuel Urbietak "La ikastola y el niño"-ren inguruan jardun zuten. Erritmo desberdinarekin antolatu zen, arlo kulturalak indarra hartu duelako ikusgarritasunaren edo folklorismoaren aurrean.

VII. Euskal Jaia (1972)

Zapatuan, Oskorrik kontzertua eskaini zuen, antolatzaileek itxurari baino edukiari lehenetasuna eman nahi izan zioten edizioan. 1.400 dantzaritik gora bildu ziren animazio handiagoa izan zuen edizioan. Amaña, ipurua, Urkizu eta Galeriasen banatu ziren, jaietako batzordekoek hainbat joku, sokatira tartean, antolatuz auzoko eta taldeentzako umeentzat. 2.500 karamelo banatu ziren auzo bakoitzean. 22 talde espero ziren, baina azken orduan Debatik etorritako biek, 24 batu ziren. Etxeetan hartutakoekin batera, elkarrekin kolaboratu zuten bazkarietan, baina hauek espero zutena gainditu zuten. Arratsaldean talde autoktonoen alardea izan zen, Markinako Zerutxo eta Lizarrako Larrainza nabarmenduz. Giroa borobiltzeko, Arrate eskubalo taldeak Valentziako Dominicosi irabazi zion Txaltxa Zelaian, Nazional 1. Mailara igotzeko promozioan.

Umeen Euskal Jaiaren egunean, 09.30etan, Arrateko txistularien kalejira; 10.30etan, taldeak Untzagan batu ziren, gero auzoetan banatzeko; 16.30etan, alardea egin zen Untzagan eta, amaieran, lau herrialdeetatik etorritako banakakoen erakustaldia izan zen, goiko biak eta Donostiako Gaztetxu eta Gasteizeko Iradierekin; eta 18.30etan, Agur Jaunak eta taldeak euren herrietara joan ziren; jarraian, baina, erromeria egin zen Kezkako eta Arrateko txistulariekin.



VIII. Euskal Jaia (1973)

Aste bikoa izan zen. Eguenean, Eibarko Juan Antonio Mogel Ikastolaren inguruko mahaingurua egin zen, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean izandako asmo berriak eta hezkuntza erreformak eragindako egoera berria tratatzeko. Barixakuan, Caro Baroja anaien "Navarra, las cuatro estaciones" pelikula proiektatu zuten. Zapatu arratsaldean, umeendako saioa izan zen, txotxongilo eta zine emanaldiekin. Domekan, bertsolarien jaialdia egin zen Astelenan, Uztapideren omenez. Familiei umeak hartzeko gonbidapena egin zitzaien.

Hurrengo astean, Debako Arte Eskolako lan erakusketa zabaldu zen. Eguenean, umeen antzezpena egin zen Kulturean, handik urten eta Arrateko eta Deporrek txistulariekin kalejira egiteko Untzagaraino, han dantzak egiteko Musika Kioskoan. Zapatuan, kontzertua egin zen Astelenan, Mikel Laboa, J.M. Zabala, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Artze anaiak eta Pantxoa eta Pellorekin. Ekainaren 3an, Euskal Jaia ospatu zen. Han izan ziren ere Zubietako Zantantzarrak.



1973. Asier Sarasuaren
etxean bildutako
dantzari kuadrila.

IX. Euskal Jaia (1974)

Arrateko Euskal Kultura Batzordeak antolatuta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babesarekin izan zuen. Liburu eta Disko Azokaren bigarren edizioa zabaldu zen zapatuan. Baserritarrez jantzita irtetzeko deia egin zen. Eguenean, Klub Deportiboaren eguna ospatu zen. Kezka taldeak Muzategi kalean zuen akademiatik irtenda, Untzagaraino joan ziren, bertan 17.00etan alardea egiteko, Kezkako 300 dantzariekin eta 100 txistulariekin.

Barixakuan, Kixki, Mixki eta Kaskamelon pailazoan emanaldia izan zen Kulturean, umeentzat bakarrik. Helduei kanpoan geratzeko eskatu zitzaizkien.

Zapatuan, kalejira egin zuten SCR Arrateko 100 txistulariekin, Juan Larrinagak zuzenduta. Gauean kontzertua egin zen Astelenan: Bergarako Urretxindorrek, Oiartzungo Oihartzunak, Lupe bermiotarra, Jon Bergaretxe eibartarra eta Gorka Knorr gasteiztarra izan ziren parte hartzen, Maltzata eta Landakanda Elosuako trikitilariak lagunduta. Jose Mari Iriondok, hainbat urtetan Radio Loyolan jardundakoak eta gero EITB-n ibilitakoak egin zituen aurkezpen lanak.

Domekan, Umeen Euskal Jaia ospatu zen, 1.300 umeen parte-hartzearekin: kanpoko 900 eta Eibarko 400. Herri bakoitzetik, 50 ume inguru. Meza egin zen Urkizun 09.00etan eta kontzertua 10.00etan. Lau karroza izan ziren: Ikastolako, Klub Deportiboko, Karmengo parrokiako eta Kultureko. Umeak bost bloketan banatu zituzten herrian dantzan egiteko. 14.00etan ziren bazkariak, gehienak soziedadeetan. Azken alardea Ipuru zelaian egin zen, 16.30etan. Eta 18.00etan Agur Jaunarekin amaitu zen.

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



1975. Sorginen karroza.

X. Euskal Jaia (1975)

Martitzenean Andu Lertxundik "Heziketa osatua" hitzaldia eman zuen, eskaintzen zirenen artean azkena. Eguenean, Kezkaren Eguna, Euskal Jaiaren barruan. 16.00etan kalejira egin zuten M^a Angela kaletik Untzagaraino eta han ehun dantzaritik gora hartu zuten parte. Sokatira ere egon zen, Ikastolako lau talderekin. Aurrerku lehiaketa egin zen eta txistularien alardea.

Zapatuan, Liburu eta Disko Azoka zabaldu zuten. Gauean, Gontzal Mendibil, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Lasa eta Iturbide, eta Pantxoia eta Pello izan ziren parte hartzen Astelena frontoian emandako kontzertuan, trikitilariekin batera.

Domekan, ekainaren 1ean, Euskal Jaia ospatu zen 2.000 umeekin, euretako 800 Eibarkoak. Kalejira hasi eta 09.30etan meza ospatu zuten.

1975. Karmengo parrokiako karroza.



XI. Euskal Jaia (1976)

Eguenean, Kezkaren Eguna egin zuten, 500 dantzarirekin eta arrakasta handiarekin. Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. 23 dantza taldek hartu zuten parte, 2.000 umeekin. Hiru karroza izan ziren: Ikastolarena, Karmengo parrokiarena eta Kulturekoa. 17.00etan Untzagan mutil guztien alardea egin zen eta, jarraian, neskena. Ekitaldia amaitzeko, Gernikako Arbola eta Agur Jaunak jo ziren. Iraolagoitia alkateak eta hainbat zinegotzik presiditu zuten jaialdia.

XII. Euskal Jaia (1977)

Arrate Kultur Elkartek eta Klub Deportivoak elkarrekin antolatu zuten. Martitzenean, "Alternativa de la enseñanza" hitzaldia eman zen, ikastolek eta erakunde politikoak antolatuta. Zapatuan, abesbatzak, txistulariak, dantzariak eta antzerkia batu zituen Armeria Eskolan prestatutako ekitaldiak.

Domekan, Kezkaren Eguna egin zen. Kalejira egin zen eguerdian, Kezka-ko 800 umeekin eta 150 txistulari gazteekin. Arratsaldean, sokatira lehiaketa izan zen 8 eta 10 urteren arteko ikastolako umeen lau taldeen artean. Jarraian auresku lehiaketa eta umeen dantza solte txapelketa egin ziren. Zapatuan, musika jaialdia izan zen Asteleanean, Gontzal Mendibil, Josu eta Jokin, eta Nerea Gastelurrutia eta Jon Bergaretxe eibartarrek.



1977-V-31. Plazaola

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte




1977-V-31. Plazaola




1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola





1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. Plazaola

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1977-V-31. *Plazaola*

1977-V-31. *Plazaola*





1977-V-31. *Plazaola*



1977-V-31.
Plazaola



1977-V-31. Plazaola



1977-V-31. *Plazaola*

XIII. Euskal Jaia (1978)

Eguenean, Kezkaren Eguna ospatu zen. 600 dantzarik eta 200 txistularik, denak Kezkakoak, parte hartu zuten taldea sortu zela 20 urte bete zirenean. Egun horretatik egon zen zabalik Liburu eta Disko Azoka, urte horretan euskerazko aldizkarien aldeko kanpaina moduan iragarrita.

Zapatuan, Xeberri eta Maite Idirin izan ziren Astelenako kontzertuan. Domekan, ohiko Alardeak Ipuru futbol-zelaian izan zuen kokagunea, 17.00etatik aurrera.

Amatñok Arrate Kultur Elkartearen

50. urteurrenean egindako kolaboraziotik:

“Deportiboan orduan bizi zen euskal giroa ez zen orduko zenbait gazterentzat ‘progrea’. Kultureko zuzendaritza Deportibokoa baino askoz ere erdaldunagoa zen. Deporreko euskaltzaletasuna jatorragoa zen, berezkoagoa, demonstratu beharrik ez zuena; Kulturekoa, ostera, kaletarragoa, modernoagoa, militanteagoa, orduan Euskal Herrian indartzen ziharduen kultur-mugimenduei lotuagoa”.

“

Kuestazinoan ibilitako neska bati poliziak sakela kendu zion eta etxera etorri zitzaidan salatu ez genuelako, kontu eske. Urtero 1.000 pezeta ematen ziguten lagunen zerrenda bagenuen. Orduko mila pezeta? 1965ean alfista batek 3.000 pezetako soldata zuen”.

XIV. Euskal Jaia (1979)

Liburu Azoka aste osoan egon zen zabalik. Hitzaldien artean, gai historikoak hartu zuten indarra urte hartan eta, hizlarien artean, Juan San Martin eta J.M. Arrieta izan ziren.

Zapatuan, Imanol eta bere taldea, alde babetetik, eta Iñaki Eizmendi, bestetik, izan ziren Astelenan. Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. Bertiko moduan eta arratsaldeko ekitaldia berriro Untzagan eginda.

XV. Euskal Jaia (1980)

Hitzaldiekin beste ahalegin bat egin zen. Caro Barojak gai historikoei buruz eman behar zuen bat bertan behera geratu zen; hala ere, egon ziren beste batzuk, tartean bertsoaritzari buruzko bat eta beste bat arazo energetikoaren inguruan.

Mikel Usobiagak Arrate Kultur Elkartearen

50. urteurrenean egindako kolaboraziotik::

“Orduko Euskal Jaiak antolatzeke arazoak izan genituen. Parte-hartzearen alde jo genuen, folklorismoaren aurka, eta egurra eman ziguten. Oraindik abesten diharduen batek -oso ona- ez zela etorriko esan zidan gorri espainolistak antolatzen zutelako. Oskorri ere boikotatu zuten orduan ahaztuta zegoen eta orain goraiatua den Gabriel Arestiren letrak musikatzen zuelako”.



1980. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO4657



1980. Juan San Martin. AGG-GAD_ISMO4669

XVI. Euskal Jaia (1981)

Hitzaldiak oihartzun gutxi zutela-eta, kendu egin ziren. Gauza bera gertatu zen Astelenako kontzertuarekin, diru arazoengatik.

Maiatzaren 16an, zapatuan, umeendako marrazki lehiaketa, erraldoi eta buruhaundiak, eta antzerki ikuskizuna, azken hori Karrakaren eskutik, egin ziren.

Maiatzaren 23an, hurrengo zapatuan, herri berbena egin zen. Maiatzaren 24an, domekan, Dantzari Eguna ospatu zen lehen aldiz.

Maiatzaren 30ean, hirugarren zapatuan, Maskaradaren inguruko antzerkia egin zen eta Liburu Azoka zabaldu zen. Ekainaren 1ean, Euskal Jaia ospatu zen.

XVII. Euskal Jaia (1982)

Antolatzaileak Euskal Eskola, Klub Deportiboa eta Kulturala izan ziren, kuestazio eta guzti. Bi hitzaldi eskaini ziren: "Prensa Vasca" eta "El taller de escultura de AYA", Goaz antzerki taldeak "Gernika" lana aurkeztu zuen eta umeendako marrazki lehiaketa jokatu zen. Domekan, Dantzari Eguna ospatu zen. Bertsolari gazteen jaialdia antolatu zen eguerdian eta, arratsaldean, umeendako dantza solte txapelketa antolatu zuten.

Hurrengo asteko barixakuan, bertsolarien jaialdia egon zen, Amuriza, Lopategi, Mendiburu, Peñagarikano, Telleria, Lasarte, Murua eta Narbaiza eibartarrarekin; eurekin hartu zuten parte bertso eskolako hainbat ikaslek. 200 pezeta izan zen prezioa. Hor amaitu zen urte hartan martxan ipini zen Bertsolari Eskolako ikasturtea.

Hurrengo zapatuan, kale-antzerkia egon zen Karraka taldearekin: "Pinpili Panpala" muntaia berria eskaini zuten, umeendako aproposa, mitologian oinarritutako panpin handiekin. Eta Korrika herrian gaueko 12.00etan sartzen zenez, berbena izan zen Untzagan Ekaitz taldearekin, kaleetatik Zestoako txarangak giroa ipiniz eta Korrikan parte hartu behar zutenak animatuz. Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. Iturengo Txuntxurroak izan ziren gurean.



1981-VI-1. Plazaola

1981-VI-1. Plazaola





1981-VI-1. *Plazaola*



1980. hamarkadaren amaierako Kezkao dantzariak.



Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



1982-V-30.



XIX. Euskal Jaia (1984)

Aurrekontua 700.000 pezetatik 450.000ra jaitsi zen, Udalak eta Aurrezki Kutxa Munizipalak diru gutxiago eman zutelako. Domekan, maiatzaren 20an, Dantzari Eguna ospatu zuten. Kezka-koek dantzatu zuten eta ume trikitilarien lehiaketa jokatu zen eguerdian.

Zapatuan, maiatzaren 26an, herri-kiroletako erakustaldia egon zen 18.00etan, Ermuko Nekazal Eskolakoekin: harriak, enborrak eta sokatira izan ziren protagonista. Bilboko Alde Zaharreko Txomin Barulloko txaranga etorri zen.

Domekan, maiatzaren 27an, Euskal Jaia ospatu zen. 10 talde izan ziren parte hartzen, aurrekoan 14, eta horren aurrekoan 20 izan zirenean. Sei Bizkaitik etorri ziren, bi Gipuzkoatik, eta bana Gasteiztik eta Lizarratik. Ttuntturroen ordeztu, Bilboko dultzaineroak etorri ziren. Eta trikitilari bikotea ere Bilbotik ekarri zuten: Kepa eta Motriko (Kepa Junkera ospetsu egingo zen gero). 10.00etan irten zuen kalejirak eta 12.00etan hasi ziren dantzan eta, goizez denek batera egin zuten moduan, arratsaldean talde bakoitzak bere aldetik egin zuen dantza.

XX. Euskal Jaia (1985)

800.000 euroko aurrekontua batez ere autobusak jan zituzten. Postulazioa ere egin zen. Aurreko domekan, Dantzari Eguna ospatu zuten. Eguenean Deporren eskaini behar ziren Nairobitarraren inguruko diaporamak astelehenera pasatu ziren

Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. Kalejira egin zen Arrasateko dultzaineroekin eta Kepa, Motrico eta Zabaletarekin. 09.00etan Urkizun batu ziren talde guztiak, 11.00etan desfilea hasi zuten, 11.30etan alardea egin zuten eta, hortik, soziedadeetara jo zuten. 800 ume izan ziren guztira, 14 taldekoak, tartean Kezka eta Amalur Eibarkoak sartuta.

XXI. Euskal Jaia (1986)

Deporrek, Kultur Taldeak eta Kezkek antolatu zuten ia hilabete osoa hartu zuen egitaraua. Aurreko domekan, Dantzari Eguna ospatu zen. Martitzenean, "La bajada del Ebro en piragua" Nairobitarraren ikusentzunezkoa eman zuten.

Zapatuan, artisau azoka zabaldu zen Untzagan, taila, damaskinatua, abarkak eta zeramika erakusgai. Herri-kirolak ere izan ziren, Ermuko Nekazal Kirola peñakoen parte hartzearekin. Bertsolari lanetan Narbaizak, Kristina Mardarasek eta Ziardak jardun zuten.

Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. 14 taldeko ia 1.000 umek hartu zuten parte. Giroa alaitzen Kepa, Motriko eta Zabaleta izan ziren.

XXII. Euskal Jaia (1987)

Maiatzaren 9an hasi zen egitaraua. Antolatzaileek barkamena eskatu zioten Euskadiko Kutzakoei, jai-egitarauan ez zirelako agertzen babesle moduan.

Maiatzaren 24an, Dantzari Eguna ospatu zen. Ermuko Nekazal Eskolako kirolariak eta Jon Sarasua bertsolaria ezin izan ziren etorri. Bai izan zirela, ordea, Amurizaren bertso eskolako ikasleak. Arratsaldean dantza solte lehiaketa jokatu zen.

Hurrengo zapatuan, Euskal Artisauen Azoka egin zen, bost posturakin. Peñagarikano eta Kristina Mardaras jardun zuten bertsoan. Giroa ipintzen Txomin Barullokoak izan ziren berriz ere.

Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. 15 talde etorri ziren gurera. Goi-zean, Arrasateko dultzaineroek eta hiru trikitilariak lagundu zieten.

XXIII. Euskal Jaia (1988)

Egitaraua maiatzaren 7an hasi zen. Kezka hasi zen antolatzen Klub Deportiboarekin batera. Dantzari Eguna bertan behera geratu zen arratsaldez, botatako euri zaparradarengatik.

Zapatuan, Artisauen Azokak Untzaga eta T. Etxebarria kalea hartu zuen. Hor izan ziren parte hartzen Damaskinatu eta Zeramika Eskolakoek, eta saskigintza eta egur arloko lanak ere erakutsi ziren. Eguerdia kaskarra iragarrita bazegoen ere, eutsi egin zion; ez, ostera, gauak, eta Liskerren kontzertuarendako izan zen zoritxarra.

Domekan, Euskal Jaia ospatu zen. 700 parte-hartzaile izan ziren, 13 taldetan banatuta. Kalejiran trikitilariak, Arrasateko dultzaineroak eta Zumaiatarrak fanfarreak hartu zuten parte.

XXIV. Euskal Jaia (1989)

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kutzak (Lankide Aurrezkiak) bul-tzatutako Kultur Bideetan sartu zuten Euskal Jaia. Astelehenetik eguenera, euskal jantziak erakutsi ziren Lankide Aurrezkiaren aretoan. Aurreko martitzenean, J.A. Urbeltzek "Euskadiko musika militarra eta zortzikoaren arazoa"-ren inguruko hitzaldia eskaini zuen. Eguaztenean, "Ander eta Yul" pelikula eman zuten.

Zapatuan, Jaione eta Fernando pailazoen lana ikusteko aukera izan zuten txikienek. Domekan, Dantzari Eguna ospatu zen.

Maiatzaren 29an, J. Garmendia Larrañagaren "Euskal ohiturak" hitzaldia egin zen Udaletxean. Maiatzaren 30ean, "Sorginak Euskal Herrian" gaiaren inguruko hitzaldia eman zuen Alizia Stürtzek. Ekainaren 1ean, Goaz antzerki taldeak Xabier Mendigurenen "Kanpotarrak maisu" lana eskaini zuen Unibertsitate Laboralean. Ekainaren 2an, bertso eta txiste afaria izan zen Bide-Alde elkartearen, Lazkao Txiki eta Mañukorta bertsolariarekin. Kaleko giroa pizten Arrasateko dultzaineroak ibili ziren.

Ekainaren 3an, Eskulangintza Erakusketa egin zen Untzagan, eta 40 stand-etik gora izan ziren. Arratsaldean, Kokox, Kakax eta Kirriki pailazoak barrezka ipini zuen jendea Untzagan. Eta, gauean, Liskerrek kontzertua eman zuen. Ekainaren 4an, Euskal Jaia ospatu zen. 12 talde batu ziren, Arrasateko dultzaineroekin eta Zumaiatarrak txar-rangarekin.



*Euskal Jairen zilarrezko ezteien aurkezpena udaletxean. Mahaian, Jon Lopez de Gereñu, Libe Betolaza, Alberto Alkoba, Jon Garaizabal, Amaia Amezua eta Fernando Muniozguren. **Javier Fernandez***

XXV. Euskal Jaia (1990)

Hilabete osoa hartu zuen mende laurdenak. 3 milioiko aurrekontua izan zuen, aurreko urtekoa hirukoiztuta. Lankide Aurrezkiak lagundu zuen gehien, Jaurlaritzako Kultur Bideetan-ek ere bai eta Udaletik ere jaso zen zeezer.

Maiatzaren 5ean, herri-afaria egin zen Orbea pilotalekuan. Han Sebastian Lizaso eta Mañikorta bertsolariak, Joserra Galarraga eta Guillermo Segurola txiste-kontalariak eta Arrasateko fanfarrea izan ziren afaria alaitzen.

Maiatzaren 8an, "Gerrate karlistaren kronika" filma eman zen.

Maiatzaren 10ean, Juan Mari Beltranek hitzaldia eskaini zuen Udaletxean Euskal Herriko musika tresnei buruz.

Maiatzaren 15ean, Pako Aristik euskal kantautoreei buruz jardun zuen Udaletxean emandako bere hitzaldian.

Maiatzaren 17tik 23ra arte, Kima taldekoek marrazki bizidunak erakutsi zituzten Udaletxeko kultur aretoan.

Maiatzaren 18an, Hika antzerki taldeak bere azken lana erakutsi zuen

Untzaga plazan. Egun horretan 18.30etan Umeen Jaialdia egin zuten Jaionek eta Fernandok. Gauean, Zortziko muntaiaren agerpena egin zen Ipurua kiroldegian, 300 laguneko taldeak dantza, jantzi eta argiz osatutako ikuskizuna.

Maiatzaren 19an, Eibarko Dantzarien Eguna ospatu zen. Herriko "antzinako" dantzariak bildu ziren berriro dantza saioa egiteko.

Maiatzaren 24an, Alizia Stürtze izan genuen hizlari Udaletxean, "Agote eta ijitoen" gainean.

Maiatzaren 25ean, Mikel Laboaren kontzertua izan zen Unibertsitate Laboralean.

Maiatzaren 26an, Euskal Jaia ospatu zen. 900 ume baino gehiago izan ziren parte hartzen. Dultzaineroak eta fanfarreak lagunduta ibili ziren.



1990. *Javier Fernandez*



Juan Larrinaga, txistularien zuzendari. Javier Fernandez

XXVI. Euskal Jaia (1991)

Deportiboko Kultura Batzordeak eta Kezkako umeen gurasoak antolatuta, Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz eta Kultur Bideetan programaren babespean egin zen.

Maiatzaren 17an, Letrakit Euskal Letren erakusketa zabaldu zen, Ramon Sarasuak "La música en Eibar . Eibarko musikoak" liburua aurkeztu zen, sorpresa musikarekin eta Jose Antonio Arana Martijak hitzaldia eskaini zuen. Egun berean, gauez, Xabier Amuriza bertsolaria eta Anje Duhalde abeslaria izan ziren azken diskoko kanta berriak aurkezten J.B. Gisasola Kontserbatorioan.

Maiatzaren 18an, Euskal Herriko Etnografiaren erakusketa zabaldu zen udaletxean.

Maiatzaren 21ean, Karlos Argiñanok eta Eibarko sukaldari berriak "Euskal sukaldaritza eta eibartar sukaldari berriak" inguruko mahainguruan jardun zuten.

Maiatzaren 23an, Xabier Amurizak "Bertsolaritza gaur eta bihar" gaiaren inguruan aritu zen berbetan.

Maiatzaren 24an, Pablo Gonzalezek "Indalecio Ojanguren" ikus-entzunezko proiektzioa eman zuen Untzagan gauez.

Maiatzaren 25ean, Eibarko Dantzarien Eguna ospatu zen. Goizez Kezkako lokaletik Untzagarainoko kalejira egin zen, gero Untzagan dantza-saioa eskaintzeko. Arratsaldean dantza-solte txapelketa egin zen, 14 urtez azpiko bikoteentzat.

Maiatzaren 28an, "Hemengo musikaren mobida azken hamarkadan eta geroa" gaiaren inguruko mahaingurua egin zen Katu Kale tabernan, Porrot taldekoek antolatuta. Oskorri, Su Ta Gar eta Hertzainak-ekin.

Maiatzaren 30ean, poesia errezitala eskaini zuten Gerardo Markuletak eta Arantzazu Loidik J.B. Gisasola kontserbatorioan.

Maiatzaren 31n, "Eta etxean zer" kale-antzerki lana eskaini zuen Taupada taldeak.

Ekainaren 1ean, Kixka txotxongilo taldeak "Bikote bihurria" lana ekarri zuten Untzagara eta disko-foruma egin zen Kontserbatorioan Txomin Artolarekin.

Ekainaren 2an, Euskal Jaiaren egunean, goizean kalejira egin zen, talde guztiei txalapartarekin egin zitzairen ongi-etorria Untzaga eta dantza-saioa egin zen. Auzoetan dantza-saioak eskaini zituzten, jarraian elkarteetan bazkaldu eta arratsaldean Euskal Herri osoko dantzak izan ziren ikusgai. Larrain-dantzak ere izan zuen bere unea. Egun osoa Arrasate eta Txantreako dultzaineroek girotu zuten, Zumai fanfarrearekin batera.

XXVII. Euskal Jaia (1992)

Maiatzaren 29an, "Patagoniako tierra de fuego" ikus-entzunezko proiektzioa egin zuen Martin J. Bonok.

Maiatzaren 30ean, Artisauen erakusketa egin zen eguerdian Untzagan: damaskinatua, pilotak, zesta punta, metalezko zuhaitzak, uztarriak, altzariak, ezta-erlauntza... Gainera, Eibarko Udal Zeramika Eskolak zeramikazko lanak erakutsi zituen, Eibarko Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroak makramea eta AEKko ikasleek taloak egin zituzten. Bertsolariek ere hartu zuten parte. Arratsaldez, haur-jolasak izan ziren.

Maiatzaren 31n, Euskal Jaiaren eguna egin zen.

XXVIII. Euskal Jaia (1993)

Maiatzaren 21ean, "Euskal Herria" ikus-entzunezkoa eskaini zen Untzagan gauez.

Maiatzaren 22an, Dantzari Eguna ospatu zen eta gauez kantaldia egin zen Kontserbatorioan. Mikel Markez kantariarekin, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu bertsolariak jardun zuten.

Maiatzaren 23an, dantza-solte txapelketa jokatu zen eguerdian.

Maiatzaren 25ean eta 27an ...eta kitto!-k antolatutako bi mahainguru egin ziren Euskadiko Kutzaren lokalean: "Eskupilotaren etorkizuna" izenekoan, Iñaki Aldazabal pilotariak, Josean Unsaín ikaspelota programako arduradunak, Pello Urtasun Federaziotik, Asegarceko Roberto Garcia Ariñok eta Empresas Unidas-eko Pedro Mari Iriondok jardun zuten, Xabier Euskitze kazetariaren aginduetara. Bigarrenak "Harrijasotzea ala karga-jasotzea: etorkizuna, txapelketak eta dopina" izan zuen izenburu. Hori aztertzen izan ziren Iñaki Perurena eta Zelai harrijasotzaileak, Ziriako Ortiz de Zarate aurkezlea eta Felix Beitia Federaziokoa, guztiak ere Andres Osa "Sakona" moderatzaileari jarraituz.

Maiatzaren 28an, Martin J. Bonok "Keniako Argia" ikus-entzunezkoa erakutsi zuen Untzagan gauez.

Maiatzaren 29an, Artisauen Erakusketa egin zen goizez Untzagan. Arratsaldez, bestalde, haur-jolasak izan ziren: aulki-dantza, arto batzea, arrautza eta koilara, sagarrak jaten, lapiko apurketa, patatak bekokian, zaku lasterketa, binaka lotutako lasterketak...

Maiatzaren 30ean, Euskal Jaia ospatu zen.



1993. Javier Fernandez



1993. Javier Fernandez



Javier Fernandez



Javier Fernandez

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu eta Mikel Markez. 1993. ...eta kitto!



Erromeria. 1993. ...eta kitto!



Javier Fernandez



Javier Fernandez

XXIX. Euskal Jaia (1994)

Klub Deportiboarekin Betikuak eta ...eta kitto! jardun zuten elkarlanean antolaketa lanetan.

Maiatzaren 19an, Joseba Tapiaren kontzertua izan zen.

Maiatzaren 20an, antolatutako bertso-afariak ezustea izan zuen, iragarrirako Iratxe Ibarra, Oihane Enbeita eta Ibon Ajuria bertsolariei azken orduan Jesus Mari Irazu eta Maddadlen Lujanbio gehitu zitzaizkielako.

Maiatzaren 21ean, Dantzari Egunean, Kezka dantza taldeak, Musika eskolaren laguntzarekin, Nafarroa Behereko dantza ikusgarriak aurkeztu zituen.

Maiatzaren 22an, dantza-solte txapelketan, Erreterria eta Zarautz

inguruetatik etorritako dozena bat bikote gaztek hartu zuten parte. Maiatzaren 27an, Asier Serranok poesia errezitara eman zuen.

Maiatzaren 28an, 10 Ordu Euskaraz ekimena egin zen, hitzarmena sinatu zuten talde, ikastetxe, elkarte eta kolektibo guztiekin. Ekimen horretan urte osoan egiten ziharduten ekintzen erakusketa egin zuten: errugbia, futbitoia, eskubaloia, atletismoa, saskibaloia, eskia, dantzak, herri-kirolak, eskalada eta beste hainbat. Euskal Artisauen erakusketak ere izan zuen bere tokia.

Maiatzaren 29an, Euskal Jaiaren eguna izan zen, Untzagan egindako lehen herri-bazkariarekin. Arratsaldean, gainera, Nafarroako produktuak dastatzeko aukera izan zen T. Etxebarrian.



1994. Jose Luis Calleja

1994. Jose Luis Calleja



1994. Jose Luis Calleja

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1994, *Kezka Dantza Taldea*

1994, *Kezka Dantza Taldea*





1994, *Kezka Dantza Taldea*

1994, *Kezka Dantza Taldea*





1994, *Kezka Dantza Taldea*

1994, *Kezka Dantza Taldea*





1994, *Kezka Dantza Taldea*

1994, *Kezka Dantza Taldea*



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1994, *Kezka Dantza Taldea*

1994, *Kezka Dantza Taldea*





1994, Kezka Dantza Taldea

1994, Kezka Dantza Taldea



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1994. ...eta kitto!

1994. ...eta kitto!



XXX. Euskal Jaia (1995)

Maiatzaren 6an, "Hamar Ordu Euskaraz" Berbia Emon euskararen aldeko programa egin zen.

Maiatzaren 10ean, "Goenkale" telebista saiaoren inguruko mahaingurua egin zen.

Maiatzaren 12an, bertso-afaria egin zen Bide-Alde elkartean.

Maiatzaren 13an, dantza-solte txapelketa jokatu zen Untzagan eguerdian eta, jarraian, herri-kirolak izan ziren.

Maiatzaren 17an, "Lehengo eta oraingo di-bertsioa Eibarren" gai hartu zuten mahaingurua egiteko Topalekuan.

Maiatzaren 20an, Euskal Artisauen Erakusketa egin zen Untzagan.

Maiatzaren 21ean, Euskal Jaia ospatu zen, goizeko dantza ekitaldiekin eta arratsaldeko dantza-saio eta erromeriarekin. Karrozen ohitura berreskuratu zen eta, ikastola eta ikastetxeen partaidetzari esker, lau karroza irten ziren. Eta kanpoko, Euskal Herriko, hamar talde ekarri zittuzten berriro.

Maiatzaren 26an, Hiru Truku-k kontzertua eskaini zuen Unibertsitate Laboralean.

Maiatzaren 27an, Eibarko Dantzari Eguna egin zen, Kezkako lokaletik kalejiran irten eta Untzagan ikuskizuna eskaintzeko.



1995. Antolatzaileen bilera...**...eta kitto!**



1995. Berbia Emon egitarauan sartu zuten...**...eta kitto!**

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1995. *Javier Fernandez*

1995. *Javier Fernandez*





1995. Kezka Dantza Taldea

1995. Kezka Dantza Taldea





1995. Kezka Dantza Taldea



1995. *Kezka Dantza Taldea*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1995. *Kezka Dantza Taldea*



1995. *Kezka Dantza Taldea*

XXXI. Euskal Jaia (1996)

Maiatzaren 19an, inoiz baino aurreratuago Euskal Jaia egin zen. Karrozak T. Etxebarria kalean bildu ziren eta Urkizura jaitsi. Handik igo eta dantza-saioak egin ziren, Untzagan eta auzoetan. Herri-bazkariaren ondoren, arratsaldean, Euskal Herriko eskualde guztietako dantza-saioa eskaini zuten. Kanpoko dantzariak joan ondoren, esku erromeria egin zen Jauregi anaien eskolako trikitilarietz lagunduta; azken horiek egun osoan jardun zuten, Arrasateko gaiteroekin batera.

...eta kitto!-rekin elkarlanean antolatutako dantza ikastaroak martxan ipini ziren: larrain dantza, fandangoa, arin-arina eta zazpi jauziak ikasteko.



*Euskal Jaiaren
antolatzaileak
Amaiurren.*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



*Jose Etxeberria "Querido"-k
parte hartu zuen Berbia
Emon-en...eta kitto!*



*Posatzeko ordua
...eta kitto!*



1997. *Kezka Dantza Taldea*

XXXII. Euskal Jaia (1997)

Maiatzaren 4an, poeta gazteen I. Poesia Eguna antolatu zen. Hurrengo egunetan hainbat hitzaldi izan ziren.

Maiatzaren 9an, bertsolari gazteen afaria egin zen Biltokian.

Maiatzaren 10ean, Eibarko Baserritarren Azoka egin zuten eta, arratsaldean, Dantzari Eguna ospatu zuten. Gauean Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuen.

Maiatzaren 16an, Maratoi Kulturala edo bost tabernatan banatutako zirkuitoa prestatu zen, jendeari guztietara joateko aukera eskainiz. 20.00etan, Klub Deportiboan Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal bertsolariak balkoitik balkoira jardun zuten bertsoan. 21.15etan, Juan Luis Zabalak 80. hamarkadako Azpeitiko Gaztetxean girotutako

“Galdu arte” liburua aurkeztu zuen Karrikan. 22.30etan, Arkaitz Cano, Iñigo Iruretagoiena eta Garikoitz Berasaluze poetek bi itzal poesia eta bideo emanaldia eskaini zuten Hilbeheran. 23.45etatik aurrera, Jon Maiak, Igor Elortzak eta Josu Goikoetxeak bertso nobela osatu zuten Herriko Tabernan. Eta, azkenik, goizaldeko 01.00etan, Waika musika taldeak emanaldia eskaini zuen Biltokian.

Maiatzaren 17an, Artisauen Erakusketa egin zen Untzagan eta, berri-tasun gisa, lihoaren prozesua ikusteko aukera izan zen, umeentzako artisauren tailerra eratzeari gainera. Arratsaldean dantza saioa egin zen. Maiatzaren 18an, Euskal Jaia egin zen eta erromerian Jainaga eta Narbaizak alaitu zuten giroa.



1997. *Kezka Dantza Taldea*



1997. Kezka Dantza Taldea



1998. *Kezka Dantza Taldea*

XXXIII. Euskal Jaia (1998)

Maiatzaren 8an, Gazteen II. Poesia Eguna egin zen.

Maiatzaren 9an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak etorri ziren gurera.

Maiatzaren 10ean, herri-kirolak izan ziren ikusgai Untzagan egindako erakustaldian.

Maiatzaren 12an, Alfredo Elortzak sendabelarren inguruan jardun zuen Kulturalean emandako hitzaldian.

Maiatzaren 13an, Jon Anduezaeren "Hirugarren galeria" laburmetraia eskaini zuten Portalean.

Maiatzaren 14an, Eibarko baserriaren egoerari buruz hitz egin zuten Ibon Rokandiok eta Enrike Gisasolak.

Maiatzaren 15ean, Mikel Arrillaga eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak euren saioa egin zuten T. Etxebarria kaletik hasita eta, gauean, kantu-afaria egin zen Klub Deportiboan, Iñigo Ramos eta Josu Garate gitarra jotzaileekin.

Maiatzaren 16an, Dantzari Eguna egin zen Untzagan, Gipuzkoako dantzak protagonista nagusi zirela. Gauean, Ruper Ordorikak kontzertua eskaini zuen Unibertsitate Laboralean.

Maiatzaren 17an, mendi irteera antolatu zen Eibarko txoko guztiak ezagutzeko.

Maiatzaren 19an, "Eibarko Euskal Jaiak 90 urte" gai hartuta jardun zuten Asier Sarasuak eta Leire Narbaizak.

Maiatzaren 20ean, "Kalabaza Tripontzia" emanaldia eskaini zen.

Maiatzaren 21ean, "Hartzaren inguruko mitologia eta ipuinak" gaia jorratu zuen Enrike Izagirrek.

Maiatzaren 22an, Jexuxmai & Noizbehinka taldeak kontzertua eskaini zuen Musika Eskolan.

Maiatzaren 23an, Artisauen eta eskualdeko Baserritarren Azoka antolatu zen T. Etxebarria kalean. Nerea Lazpitaren apaingarriak, Mari Asun Noguesen damaskinatuak, Eibarko Artista Gazteen artelanak, Ander Arroitauregiren musika tresnak, Igor Herzek eta Arratek larruz egindako objektuak, Nicolas Zurutuzaren makilak eta Alex Garitaonaindiaren harriak ikusteko aukera izan zen bertan. Aitor Ruizek, gainera, ezta eraman zuen azokara, eta AEK-koek, sendabelarrak erakustearekin batera, taloak eta sagardoa jarri zituzten salgai. Arratsaldean, bestalde, Donostiako Goizaldi taldeak saioa eskaini zuen Untzagan.

Maiatzaren 24an, Euskal Jaia ospatu zen. Zanpantzar, trikitalari eta gaiteroekin egin zuten kalejira eta kanpotik etorritako dantzariak auzoetan jardun zuten. Herri-bazkaria T. Etxebarria kalean egin zen.



1998. Auzoetan dantzatzen. **Kezka Dantza Taldea**

1998. Auzoetan dantzatzen. **Kezka Dantza Taldea**



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1998. *Kezka Dantza Taldea*

1998. *Kezka Dantza Taldea*





1998. *Kezka Dantza Taldea*

1998. *Kezka Dantza Taldea*





1998. *Kezka Dantza Taldea*

XXXIV. Euskal Jaia (1999)

Maiatzaren 7an, bertso-poteoa egin zen arratsaldean, jarraian Jaiki soziedadean bertso-afariarekin amaitzeko.

Maiatzaren 8an, herri-kiroletako saio berezia eskaini zen, Gipuzkoan lehen aldiz gizonezkoek eta emakumezkoek elkarrekin jardun zuten-eta. Mikel Laboak kontzertua eskaini zuen Astelena frontoian eta Asier Serranok bakarkako lanaren aurkezpena egin zuen.

Maiatzaren 9an, Euskal Jaia eguna izan zen. Herri-bazkaria Untzagan egin zen eta azken erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Egun horretan, Lekeitioko Etokizuna, Arrasateko Arrostitz, Lasarte-Oriako erketz, Tuterako Udal Dantza Taldea, Ermuko Txindurri, Durangoko Txoritxu Alai eta Traperrri, Elorrioko Betsaide, Kanpezuko loar, Zornotzako Udaberri eta Eibarko Kezka taldeek hartu zuten parte, herriko dantzari beteranoekin batera.

Maiatzaren 13an, Alfonso Martinez Lizarduikoak "Euskal zibilizazioa" hitzaldia eskaini zuen Kulturalean.

Maiatzaren 14an, Tapia, Leturia eta Patxi-ren erromeria egin zen gauez Institutoan, ...eta kitto!-k antolatutako Kultur Errotaren programazioaren barruan.

Maiatzaren 15ean, Altsasuko Aitzindari dantza taldearen ikuskizuna izan zen Untzagan.

Maiatzaren 19an, Aitor Etxartek "Iruñearen garapen urbanistikoa" hitzaldia eskaini zuen Kulturalean.

Maiatzaren 22an, Baserritarren eta Artisauen Azoka egin zen T. Etxebarria kalean, tartean Deportiboaren logotipoa irudikatzen zuen tapiz erraldoia egiteko antolatutako umeendako tailerrarekin. Arratsaldean, Dantzari Eguna ospatu zen, beteranoen parte-hartzearekin berriro ere.



1999. Kezka Dantza Taldea

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



1999. *Kezka Dantza Taldea*



1999. *Kezka Dantza Taldea*



2000. Kezka Dantza Taldea

XXXV. Euskal Jaia (2000)

Apirilaren 26an, "Emakumeak euskal dantza tradizionalen" hitzaldia eman zuen Oier Araolazak.

Apirilaren 30ean, Mikel Urdangarinek kontzertua eskaini zuen Portalean.

Maiatzaren 13an, Artisaunen Azokak kanpotik ere ekartzen hasi zen jendea. Udal Zeramika Eskolako lanen erakusketa egon zen eta, baita, umeez euskal grafia eta abarkak egiten ikasteko tailerra. Bederatzi baserriarren produktuak izan ziren ikusgai. Arratsaldean, Hortzmuga taldeak "Hortzisaurios" antzezlan eskaini zuen Calbeton kalean.

Maiatzaren 14an, Euskal Jaia ospatu zen. Herri-bazkaria egin zen T. Etxebarria kalean eta bakoitzak bere janaria eraman behar izan zuen. Kalea girotzen Azpeitiko zantantzarrak, Arrasateko dultzaineroak eta Eibarko trikitilari eskolakoak izan ziren.

Maiatzaren 16an, Maria Jesus Intxausti Emakume Baserriarren Elkarteko kideak emakume baserriarrei buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Maiatzaren 18an, Iñaki Muruak bertsolaritzari buruzko hitzaldia eman zuen Kulturean.

Maiatzaren 20an, bertso-bazkaria izan zen Kulturean, Murua berarekin eta Angel Mari Peñagarikanorekin.

XXXVI. Euskal Jaia (2001)

Maiatzaren 22an, "Tradizioa eta berrikuntza musikan" gaiaren inguruan jardun zuten Kulturealean egindako mahainguruan Bixente Martinez, Asier Serrano, Aitor Gorosabel eta Maite Arroitauregi herriko abeslariak eta Joseina Etxeberria Euskadi Gazteako esatariak, eta moderatzaile lanetan Haritz Lete izan zuten.

Maiatzaren 25ean, Morau, Sagarroi eta Txapelpunk taldeek rock kontzertua eskaini zuten Untzagan. Aurretik, baina, kale-antzerkia izan zen.

Maiatzaren 26an, Artisau eta Baserritarren Azokan musika tresnak izan ziren ardatz: luthierrak, atabalak, panderoak, danbolinak, txalapartak, albokak, txistuak, txirulak, ttunttunak eta karrakak tarteko. Herri-kirolak izan ziren eguerdian, Fausto Mugertza eta Bihurri aizkolariekin eta Goenatxo harri-jasotzailearekin. Bertsotan, Joxe Agirre, Imanol Laz-

kano, Angel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabalek osatutako laukoteak jardun zuten. Arratsaldean, "Upeletan erronka" trikitia, bertsolaritza eta dantza batzen dituen ikuskizuna dastatzeko aukera izan zen: Peña eta Egaña bertsotan, Ansorregi eta Larrañaga trikitiarekin eta Maia, Agote, Larrañaga eta Imaz dantza egiten, guztiak ere sagardotegi baten modura atondutako eszenategian.

Maiatzaren 27an, ohiko desfilea egin zen. Kezka Dantza Taldeak Maia-tzeko Erregina dantza erakutsi zuen. Kanpoko dantza taldeen artean, Nafarroako autobus greba zela-eta, handik ezin izan ziren etorri. Herribazkaria, bestalde, Klub Deportiboan egin zen. Arratsaldean, erromeria egin zen Patxi Perez eta Batbiru taldearen eskutik. Gero betiko Larrañaga dantza eta erromeriaren ordua izan zen.



2001. Kezka Dantza Taldea



2001. Kezka Dantza Taldea



2001. Kezka Dantza Taldea

XXXVII. Euskal Jaia (2002)

Apirilaren 25ean, Artisauen Azokan 13 eibartar izan ziren, beste hamar baserritarrekin batera. Herri-kiroletan, Fausto Mugertza eta Ugaitz eta Aratz haren semeak jardun zuten aizkorarekin; eta Faustok australiar erara moztu zuen, bost metroko alturan. Harriak jasotzen Abadiñoeko herri-kirol eskolakoek izan ziren eta Erriberatik etorritakoek laixa karrera modalitatea erakutsi zuten. Bertsotan, Debarrenako Bertso Eskolako gazteak aritu ziren. Arratsaldean Ustekabe fanfarreak alaitu zuen giroa.

Gauean, bestalde, "Arrateko Zelaiko Kantuak" lana eskaini zen Astele-nan kontzertuan. Fran Lasuen konpositore eta musikoaren arduraean, Kukka, Asier Serrano, Markos Untzeta, Mari Asun Anguera, Goruntz, Sostoa eta J.B. Gisasola Musika Eskolako abesbatzak, Juan Mari Narbaiza bertsolaria eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak parte hartu zuten. Apirilaren 26an, Euskal Jaia ospatu zen. Herri-bazkaria Klub Deportivoan egin zen. Iparraldetik etorritako Maskarada izan zen ikusgai.



2002. *Fernanfo Retolaza*



2002. Horacio Sarsketa 1944an egindako irudia, Calbeton kaleko Bar Bodegan egon zena eta "Arrateko Zelaiko Kantuak" iragartzeko erabili zena.



2002. Fernanfo Retolaza

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2002. *Fernanfo Retolaza*

2002. *Fernanfo Retolaza*





2002. *Kezka Dantza Taldea*



2002. *Kezka Dantza Taldea*



2003. Fernanfo Retolaza

XXXVIII. Euskal Jaia (2003)

Maiatzaren 8an, "Bizkaiko Kopla Zaharrak" ekarri zituen Kulturatera Xabier Amuriza bertsolariak Mixel Ducau Errobi taldekide ohiarekin eskainitako emanaldian.

Maiatzaren 9an, Asier Serranoren kontzertua izan zen Txaltxa Zelaian; Lorelei taldeko hainbat abesti errekuperatuz.

Maiatzaren 10ean, Artisau eta Baserritarren Azokarekin, Debarreneko Bertsolari Eskolakoen bertsoak izan ziren eta, herri kiroletan, Aimar Irigoien eta Odei Izeta harrijasotzaileak, eta Ugaitz eta Aratz Mugertza aizkolariak. Arratsaldean, Panta Rhi antzerki taldeak "Kattalin" antzezlan eskaini zuen Untzagan.

Maiatzaren 11n, Euskal Jaia egin zen, ondorengo herri-bazkariarekin. Arratsaldean, Tapia eta Leturiarekin erromeria egin zen.



2003. *Fernando Retolaza*

2003. *Fernando Retolaza*



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2003. *Kezka Dantza Taldea*

2003. *Arantza Uriguen*





2003. *Kezka Dantza Taldea*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2003. *Kezka Dantza Taldea*

2003. *Kezka Dantza Taldea*





2003. Kezka Dantza Taldea

2003. Kezka Dantza Taldea



XXXIX. Euskal Jaia (2004)

Debemen eta Kutxa gero eta gehiago hasi ziren sartzen antolaketaren laguntzan. Maiatzaren 22an, Kukubiltxo taldeak "Mamutxak" kale-antzerkia eskaini zuen Untzagan. Gauean, Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako "Pas de Basque" dantza emanaldia izan zen ikusgai Astelenan. 40 dantzarien artean, Donostiako Argia taldeaz aparte, baziren hor Kezka Dantza Taldeko dantzariak ere.

Maiatzaren 27an, "Euskal Selektioaren" inguruko hitzaldia egin zen Kulturalean, ...eta kitto!-k eta UEUK antolatuta, Berbaldixak izeneko programaren barruan. Iñaki Laskurain errugbilaria, Asier Riesgo or-

duan Eibar FT-ko atezaina, Abel Barriola pilotaria, Nerea Onaindia Athletic-eko jokalaria eta Koldo Irurzun EHUKo irakaslea izan ziren parte hartzen, Koldo Aldalur ETBko kazetaria moderatzailea zutela.

Maiatzaren 28an, Mal de Ojo Donostiako taldeak "Mestijaia" eskaini zuen Txaltxa Zelaiko kioskoan.

Maiatzaren 29an, Azoka egin zen, herri-kirolak eta bertsolariekin.

Maiatzaren 30ean, Euskal Jaia ospatu zen, Deportiboan egindako herri-bazkariarekin eta, amaitzeko, Patxi Perez eta Batbiru taldearen dantzaldiarekin.

2004. ...eta kitto!





2004. ...eta kitto!

2004. Iñaki Zugasti



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2004. *Arantza Uriguen*

2004. *Iñaki Zugasti*



XL. Euskal Jaia (2005)

Euskal Jaia lehenengoz zapatara pasatu zen, domekan Ibilaldia Durangon egin behar zelako. Herri-afaria ipiniko zen martxan, catering enpresa batekin kontratua eginda. Afaldu eta gero, kantu-laguntzaileekin eta trikitilariekin abesteko ordua helduko zen. 400 lagunetik gora izan ziren afaltzen.

Maiatzaren 14an, Oskorrik "The Pub Ibiltaria" lana aurkeztu zuen Hezkuntza Esparruko aretoan.

Maiatzaren 21ean, Baserritar eta Artisauen Azoka egin zen, Debarreneko bertsolariekin. Arratsaldean, bestalde, ETBk eta Kuku-biltxok ekoiztutako "Betizuak izar artian" muntaia eskaini zen Untzagan.

Maiatzaren 24an, Alberto Iñurrategi mendizaleak "Gure Himalayak" lana erakutsi zuen Portalean.

Maiatzaren 26an, Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariak "Mende baten aldarriak (XX.ean jarriak)" bertso emanaldia eskaini zuten Kulturalean.

Maiatzaren 27an, Txuma Murugarren abeslariak bere azken lanen erreperorioa eskaini zuen Txaltxa Zelaiko kioskoan.

Maiatzaren 28an, 18.00etan kontzentrazioa eta kalejira egin ziren Urkizutik Untzagaraino, Azpeitiko txuntxurro, Bilboko gaitero eta Eibarko trikitilariekin. Dantza saioa 19.00etan hasi zen, Euskal Herriko herrialde bakoitzetik etorritako dantza talde bakoitzak hamabost minutuko saioa eskainiz; Kezkak, bestalde, Abaltzizketa eta Lizartzako ihauteria plaza-ratu zuten.



2005. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2005. Oskorri.





2005. ...eta kitto!



2005. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2005. Arantza Uriguen

2005. Arantza Uriguen



XLI. Euskal Jaia (2006)

Dantza monografikoen hasiera izango da. Iruñeko Duguna dantza taldearekin batera, Ezpalak antolatzen hasiko dira. Aurreko urtean Arrate egunean erakutsitako dantzen haritik, nazioarteko ez-pata-dantzak egingo dira, Flandria, Dunkerke eta Kantabriako taldeekin. Eurekin izango dira Beasain, Legazpia, Zumarraga eta Debakoak ere, Kezkarekin batera. Txartelak salgai ipini ziren kantu-afarirako eta herri-bazkarirako. Maiatzaren 26an, umeendako euskal jolasak prestatu zituen Xiba taldeak arratsaldean; gauetz, bestalde, "A capella" zuberotar kantarien emanaldia eskaini zuten Jean Pierre Lurok, Jean Noel Pinquek, Jean Bordaxarrek eta Robert Larrandaburuk.

Maiatzaren 27an, Azokarekin batera, jokatutako herri-kiroletan Miren Urkiola harrijasotzaileak eta Ugaitz eta Aratz Mugertza aizkolariak hartu zuten parte, Telleriarekin batera. Arratsaldean, ez-pata-dantzen jaialdia egin zen; eta, gauean, kantu-afaria.

Maiatzaren 28an, Euskal Jaia ospatu zen. Bezperako talde guztiek hartu zuten parte, Amurrioko gaiteroekin, jolaldunekin eta herriko trikitilariekin. Arratsaldeko erromerian, Tapia & Leturia eta Jokin izan ziren jotzen.



2006. "A Capella".



2006. "A Capella".



2006. *Tapia, Leturia ta Jokin. ...eta kitto!*



2006. *Xiban jolasak. ...eta kitto!*



2006.. Felipe Loiola

2006.. Felipe Loiola



Euskal Jaia Eibarren - 50 urte

XLII. Euskal Jaia (2007)

Hauteskundeengatik aurreratu zen. Maiatzaren 17an, Jon Maiak "Apaizak Obeto" espedizioaren berri eman zuen Kulturean eskainitako hitzaldian.

Maiatzaren 18an, Kulki taldeak eskainitako umeentzako euskal jolasak izan ziren Untzagan, euretako askorendako ezezagunak zirenak. Gauean Benito Lertxundi bueltatu zen gurera, Coliseoan emandako kontzertuarekin. Sarrerak berehala saldu ziren. Taldearekin koroak egiten zuen neska bezperan hil zen eta, "beste bat" oihuei erantzunez, hurrengoan sarrera bikoitza kobratzarekin egin zuen mehatxu oriotarrak.

Maiatzaren 19an, Eibart gure herrian sortutako talde berriak parte hartu zuen Azokan. Herri-kiroletan, Miren Urkiolarekin batera, Nereak eta Naiarak jardun zuten trontzan eta Aratz Mugertzak eta Cañama-

resak aizkoran. Horrez gain, eskolen arteko lehiaketa hasi zen, Aldatze, La Salle, Mogel-Isasi eta Itzioko neska-mutilekin. Bertsotan, bestalde, Hamaika Bertute sortuberriko gazteak ibili ziren. Arratsaldean, makil-dantzen jaialdietako lehena egin zen, Errioxako talde batekin eta Nafarroako birekin. Bertso-triki poteoa egin zen jarraian. Afarian egon zen Nafarroako Cortes herritik etortitako bat jota bat abestera animatu zena.

Maiatzaren 20an, euriarengatik Portalera eraman zen makil-dantzen bigarrenean Terrassako Bastoners, Castelloko El Todó-Danses Guerres, Miranda do Douroko Pauliteiros portugaldarrak eta The Britannia Coco-nut Dancers ingelesak izan ziren parte hartzen (bederatzi gutzira). Patxi Perezen erromeriarekin amaitu zen eguna.



2007. ...eta kitto!



2007. ...eta kitto!



2007. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2007. *Felipe Loiola*

2007. *Felipe Loiola*



2007. *Felipe Loiola*



2007. *Felipe Loiola*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2007. ...eta kitto!



2007. ...eta kitto!



2007. ...eta kittol



2007. ...eta kittol

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2007. Fernando Retolaza



2007. Fernando Retolaza

2007. Fernando Retolaza



XLIII. Euskal Jaia (2008)

Maiatzaren 23an, Ken Zazpi taldeak kontzertua eskaini zuen Coliseo antzokian.

Maiatzaren 24an, "Tantanez tantan Eibarren euskaraz blai" izenburuko ekitaldia egin zen, Kontseiluaren 10. urteurrenarekin bat eginenez; gantxillaren ibilbideak Urkizutik Untzagaraino egin zuen.

Maiatzaren 27an, "Lore jokoak Eibarren: 1908-2008" lana aurkeztu zuen Antxon Narbaiza Eibarko ikerlariak, Ego Ibarra batzordearen eskutik, eta Andoni Egañak lagunduta.

Maiatzaren 30ean, Kalian Jolasian programako jokoak egin ziren Untzagan Astixarekin oraingoan (euskerara modu informalean lantzeko eskoletan aurrez egindako lanaren ondorioz) eta, jarraian, clownmimo saioa eskaini zen publiko guztiarentzat. Xabi Larrearen "Filamento Farolaria Clown" ikuskizuna izan zen jarraian karpn.

Maiatzaren 31n, Azokak narria izan zuen protagonista nagusia kanpotik etorritako artisauen artean; herriko 19 izan ziren eurekin. Herrikiroletan Urdax 10 urteko mutikoak jardun zuen harria jasotzen, trontzan Ana eta Itziar nafarrak eta Etxeberria ahizpak egin zuten lan, eta aizkorarekin Julen Zelaieta eta Ander Lizarralde ibili ziren. Arratsaldean, Zpez Mukaki taldeak eskainitako dantza tradizionalean oinarritutako kale-animazioa egon zen ikusgai.

Ekainaren 1ean, Euskal Jaia ospatzeko, arku-dantzak izan ziren protagonista, Ezpalak egitarauaren barruan. Urkizutik gaitero eta joaldunekin irten zuten. Euriarengatik Coliseoan egin zen ekitaldian, Toulouse, Burgos, Betanzos eta Tenerifeko taldeak izan ziren parte-hartzaileen artean. Patxi eta Konpainiak eman zion amaiera egitarauari.

2008. **Fernando Retolaza**



2008. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**

2008. *Felipe Loiola*



2008. *Felipe Loiola*



2008. *Fernando Retolaza*



2008. *Fernando Retolaza*



2008. *Fernando Retolaza*

XLIV. Euskal Jaia (2009)

Maiatzaren 19an, Pako Aristik hitzaldia eman zuen hilabete batzuk lehenago hil zen Mikel Laboaren bizitzaren inguruan Kulturean egin zen ekitaldian.

Maiatzaren 22an, tailerrak eta jolasak izan ziren ume eta gurasoentzako, Betizu, Betisuis eta Erneu-rekin. Gero, Kulturean, txalaparta eta adar hastapenen tailerrak egin ziren. Gauean, Bertsoa&Jazza emanaldia etorri zen Coliseora lau bertsolari (Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maia) eta bost musikariren (Bixente Martinez eta Julen Izarra eibartarrak, Asier Ituarte, Jon Piris eta Hasier Oleaga) eskutik, guztiek ere Unai Elizazuk ipinitako gaien inguruan jarduteko.

Maiatzaren 23an, Azokak pintoreak izan zituen protagonista eta kanpoko artisauek koadroak eta bestelako margoak ekarri zituzten.

Maiatzaren 24an, Euskal Jaia ospatu zen, karaktere-dantzak protagonista bihurtuta. Edimburgotik, Proventzatik eta Zuberoatik etorri ziren taldeak. Pre-klasikoak ere deitzen dira dantza horiek, beti errepikatzen direnak.



2009. ...eta kitto!



2009. ...eta kitto!



2009. ...eta kitto!

2009. ...eta kitto!





2009. ...eta kitto!



2009. ...eta kitto!



2009. ...eta kitto!



2009. ...eta kitto!



2009. *Fernando Retolaza*



2009. Iñaki Zugasti

2009. Iñaki Zugasti



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2009. *Iñaki Zugasti*

2009. *Felipe Loiola*





2009. ...eta kitto!

2009. ...eta kitto!



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2009. ...eta kitto!

2009. ...eta kitto!



XLV. Euskal Jaia (2010)

Maiatzaren 23an, Miarritzeko Maritzuli konpainiak "Aurrez aurre" lana eskaini zuen, Lapurdiko inauteriei eta Zuberoako maskaradei begi berriekin begiratzeko, eta Aiko taldeak sortutako musikarekin.

Maiatzaren 27an, Kalamuako Parlamintuko jokoarekin binakako txapelketa jokatu zen Klub Deportiboan.

Maiatzaren 28an, Zurrumurruka zirko eskolak tailerrak eta jolasak eskaini zituen, Kalian Jolasian egitasmoaren barruan. Txispitak, Txisposak eta Katxarrok girotutakoa izan zen, Astixaren koordinazioarekin. Gaez, bestalde, Gose taldeak kontzertua eman zuen Untzagan.

Maiatzaren 29an, Azokak beira haizatua eta raku erakustaldiak izan zituen berritasun. Beñat Telleria eta Goenatxo III.a harrijasotzaileak eta Aratz Mugertza aizkolariak jardun zuten lanean. Eskolen Arteko IV. Herri-Kirol Lehiaketa jokatu zen. Arratsaldean, bertso-triki parranda hasi zen, Hankamotxak-eko bertsolariak eta herriko eta Bergara, Oñati, Azkoitia, Urretxu, Billaboa eta Markinako trikitilariak lagunduta. Kantu-afariarekin amaitu zen eguna.

Maiatzaren 30ean, Euskal Jaia ospatu zen. Dantza-jauzien nazioarteko jaialdia izan zen ordukoa. Baztandarrak, Biarnokoak, Lapurdikoak eta Donostiakoak izan ziren gurean. Arratsaldeko erromeria Aiko taldeak gidatu zuen.



2010. **Fernando Retolaza**

2010. **Fernando Retolaza**



Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2009.

2009. ...eta kitto!





2010.

2010. ...eta kitto!



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2010. *Fernando Retolaza*



2010. *Fernando Retolaza*



2010. Iñaki Zugasti




2010. Iñaki Zugasti

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2010. **Fernando Retolaza**

2010. **Fernando Retolaza**



2010. **Fernando Retolaza**



2010. *Fernando Retolaza*

2010. *Fernando Retolaza*



2010. *Fernando Retolaza*

XLVI. Euskal Jaia (2011)

Maiatzaren 26an, Kalamuako Parlamentuaren lehiaketaren 2. edizioa jokatu zen Klub Deportiboan.

Maiatzaren 27an, umeendako eta gurasoendako tailerrak eta jokoak egon ziren, zirko-tailerrekin batera. Gauean, Gozategik kontzertua eskaini zuen Untzagan.

Maiatzaren 28an, herriko 19 artisau izan ziren Azokan, kanpoko beste zazpirekin. Bertsoan Xabi Astigarragak eta Jon Mikel Mujikak hartu zuten parte. Herri-kiroletan, bestalde, Jagoba eta Goenatxo III.a harri-jasotzaileak etorri ziren, gazte mailako Euskadiko txapelduna eta az-

pitxapelduna, eta Julen Cañameres eta Aratz Mugertza izan ziren aizkolariak. Mogel Isasi, Aldatze eta Itzioko ikasleek ere hartu zuten parte. Arratsaldean Hankamotxak eta trikitilariak ipini zuten giroa.

Maiatzaren 29an, Euskal Jaia ospatu zen, Ezpalak-eko binakako dantza solteko jailadiarekin. Transilvaniako, Italiako, Okzitaniako L'Auvergneko eta Zaragozako taldeen parte-hartzea izan genuen. Arratsaldean erromeria egin zen Arrabots taldearekin: talde horrek arrabitari, biolina familiako instrumentuari nortasun propioa eskaintzen dio, eta Jokin Otamendi dantza-maisua izan zen dantzaldiaren gidari.



2011. ...eta kitto!



2011. ...eta kitto!



2011. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2011. ...eta kittol!



2011. ...eta kittol!



2011. Felipe Loiola

2011. Iñaki Zugasti



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2011. *Felipe Loiola*

2011. *Iñaki Zugasti*





2011. *Fernando Retolaza*



2011. *Fernando Retolaza*




2011. *Fernando Retolaza*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2011. *Fernando Retolaza*



2011. *Fernando Retolaza*



2011. Fernando Retolaza

2011. Fernando Retolaza



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2011. *Fernando Retolaza*





2012. Felipe Loiola

XLVII. Euskal Jaia (2012)

Maiatzaren 24an, Juan Manuel Garmendia Slowfood Donostiako presidentek hitzaldia eman zuen Kulturean herrialde bakoitzeko nekazaritza ekoizpenak sustatzearen inguruan.

Maiatzaren 25ean, Kalia Jolasiaren barruan, zubiri-zubiri, zapitxua, gurutzeko txingoa, txingokak eta sokasaltuak jokoak egin ziren. Gauean, Patxi Saizek "Itxaropena" bere azken lana ekarri zuen, taldea osatzen duten seikoteaz lagunduta.

Maiatzaren 26an, Azokan gatzatua nola egiten den erakusten zuen tailerra egon zen. Herri-kiroletan, Idoia Etxeberria eta Beñat Telleria harrijasotzaileak eta Aratz eta Ugaitz Mugertza aizkolariek parte hartu zuten, Aimar Goenagak bertsoan jarduten zuen bitartean. Arratsaldean Hankamotxak bertso-eskolakoek eta trikitilariak bertso-triki herri-parrandan hartu zuten parte. Gaueko kantu-afarian, Jainaga eta Narbaizarekin batera, Josu Garatek ere hartu zuen parte.

Maiatzaren 27an, Euskal Jaia ospatu zen, oraingoan zinta dantzekin. Taldeen artean, Tenerifetik eta Tarragonatik etorritakoak izan ziren. Arratsaldeko erromeria Patxik eta Konpainiak gidatu zuen.





2012. *Fernando Retolaza*

2012. *Iñaki Zugasti*



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2012. **Fernando Retolaza**

2012. **Felipe Loiola**





2012. *Fernando Retolaza*



2012. *Fernando Retolaza*

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2012. *Fernando Retolaza*

2012. *Fernando Retolaza*





2012. ...eta kittol



2012. ...eta kittol



2012. ...eta kittol

Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2012. ...eta kitto!



2012. ...eta kittol

2012. ...eta kittol



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2012. ...eta kitto!



2012. ...eta kittol



2012. ...eta kittol

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2012. *Fernando Retolaza*

2012. *...eta kitto!*





2012. ...eta kitto!



2012. ...eta kitto!

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2012. ...eta kittol

2012. ...eta kittol





2012. ...eta kitto!



2013. **Fernando Retolaza**

XLVIII. Euskal Jaia (2013)

Antolatzaileek berriro bueltatu ziren soziedadeetako elkarlana eskatzera, kantu-afariaren eta herri-bazkariaren prezioa erdira jaitsiz. Txirixo, Gazte Gogor, Ipurua, Jaiki, Karramarroak, Legarre Gain, Umbe, Usobide, Zatixa, Ospelak, Bide Alde, Amaña eta Batuak izan ziren elkarte laguntzaileak, Oberena harategia eta Darena Banaketak ahaztu gabe.

Maiatzaren 18an, "Besta Berri" ikuskizuna eskaini zen Coliseoan, Juan Antonio Urbeltzek gidatutako Argia taldearen eskutik, tartean Kezkako dantzariak direla.

Maiatzaren 21ean, "Eibarko plazaren" inguruko mahaingurua egin zen Kulturealean, baserritarren eta bezeroen arteko gogota, Enrike Gisasola "Sosolak" gidatuta. Han izan ziren Gisasola, Mandiola, Barrundi eta Sumendixa-Behekuakoak, Iñaki Osoro eta Ramon Arizaga bezeroekin.

Maiatzaren 23an, Kulturealean ere, Markos Gimeno euskerarekin jolas egiteko aukera eskaini zuen palindromoen tailer irekieren bitartez.

Maiatzaren 24an, jokoak eta kale-animazioa izan ziren, azken hau Akodas Bozine elektrotarangarekin. Gauean, bestalde, kontzertua eskaini zuen eMePebo5t ErrockMerixa taldeak.

Maiatzaren 25ean, Azokako herri-kiroletan lasto jasotzea, ingudea, lasto botatzea eta gurdia modalitateak erakutsi ziren. Kantu-afarian Adolfo Jainagak Josu Garateren laguntza izan zuen kantuak egiteko, Unai Narbaiza geroago sartuta.

Maiatzaren 26an, Euskal Jaia ospatu zen sorgin-dantzekin oraingoan, eta Oslotik, Probentzatik eta Kataluniatik etorritako taldeekin. Aikok zuzendu zuen arratsaldean egingo zuten azken erromeria.



2013. *Fernando Retolaza*



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2013. **Fernando Retolaza**



2013. **Fernando Retolaza**



2013. *Fernando Retolaza*

2013. *Fernando Retolaza*





2013. Fernando Retolaza



2013. *Fernando Retolaza*

2013. *Fernando Retolaza*



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2013. *Fernando Retolaza*





Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2013. Iñaki Zugasti

2013. Iñaki Zugasti





2013. Iñaki Zugasti

2013. Iñaki Zugasti



XLIX. Euskal Jaia (2014)

Ondo Nahi, Txirixo, Gazte Gogor, Ipurua, Kamarroak, Legarre Gain, Umbe, Usobide, Zatixa eta Bide Alde elkarten laguntza izan zuten antolatzaileek.

Maiatzaren 23an, Kalian Jolasian programazioa izan zen, Astixak dinamizatuta. Jarraian Eibarko Kantuzaleak ibili ziren kalea girotzen. Gauean, Imanol Ituiñok "Magia Parrastan" ikuskizuna eskaini zuen.

Maiatzaren 24an, 32 postu izan ziren Azokan. Berritasuna izan zen baserriko produktuekin Kultureko sukaldariak prestatutako dastaketa gastronomikoa. Arratsaldean Benta Zaharreko Mutiko Alaiak izan ziren kaleetan.

Maiatzaren 25ean, Euskal Jaia ospatu zen, danbolinteroak gaiarekin, eta Ingalaterra, Katalunia eta Gaztela-Leondik etorritako taldeekin: Stephen Rowley pipe and tabor jotzailea, Angel Vallverdu flaviolaireia, Mario Martinez Roncero, Berrizko German eta Jon Aldekoa, Lapurdiko Xabier Itzaina txirulari eta ttun-ttun jolea, Kezkako Andoni Altzibar, Iñaki Barua, Jose Miguel Laskurain, Amaia Baglietto eta Roberto Altzerrekarekin. Aiko taldeak gidatu zuten arratsaldeko erromeria.



2014. Iñaki Zugasti



2014. Iñaki Zugasti

2014. Iñaki Zugasti



Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2014. *Fernando Retolaza*

2014. *Fernando Retolaza*





2014. *Fernando Retolaza*



2014. *Fernando Retolaza*

Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



2014. **Fernando Retolaza**

2014. **Fernando Retolaza**





Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2014. Fernando Retolaza



2014. *Fernando Retolaza*

2014. *Fernando Retolaza*





2014. Fernando Retolaza



2014. *Fernando Retolaza*

Horrela gogoratzen ditu lehen urteak


Jose Luis Perez Sarasketak

Eibarko Euskal Jaiak kategoria zeukan. Maiatzeko azken domekan egiten zen beti eta beste herrietan errespetatu egiten zuten, eurekin ez koinziditzeko. Inguruko herrietako dantzariak etortzen ziren: 34 talde eta 12 karroza ere egon ziren desfilean. Soziedadeeetako jendeak egiten zituzten eta oso ikusgarriak ziren.

“Behin Deban, alamedan, *Gernikako Arbola* kantatu genuen eta pañuelo, zuri, gorri eta berdeekin ikurriña marraztu genuen”. Euskal Herriko toki guztietatik etortzen zen jendea. Euskal Ezkontza eta beste hainbat alegoria eskaintzen zituzten karrozetan. Familiartasuna eskaintzen zen, etxe askotan hartzen baitzituzten umeak: txikiak etxetara joaten ziren eta helduagoak soziedadeetara.

Talde onenak etortzen ziren Iparraldetik eta Nafarroatik (Lizarra askotan) eta maila gorena hartu zuen jaiak. Astelenako jaialdian gauza bera, ikastolako andereñoek mikrofonoetatik jaialdia aurkezten. Karrozak egiteko (zazpi bat) elkarte abertzaleak hartzen zuten parte: Kulturalak

bat, Dorrepek beste bat (Antonio Sarasketa, Pepe Muñoa, Panpo tar-tean), Paulino Larrañaga eta Jose Kareaga artistek ere hartzen zuten parte: jende euskalduna batez ere. Irudikatzen zituzten sukaldea (amama eta ume txikiarekin), euskal baserria, euskerazko hizkuntza, apaiza, alkatea, euskal ezkontza (ajuar edo zerekin)... eta, hasieran behintzat, politikan ez ziren asko sartzen. Laguntzaileen artean ikastetxeak izaten ziren eta baita Goi-Argi emakumeen elkarte, Mercedes Kareaga buru zela. Dantzariak herri guztian banatzen ziren eta 14.00etan batzen ziren bazkaltzeko. Dantza bat egiten zuen talde bakoitzak eta Alardea: bi saio neskek eta beste bi mutilek. Postulazioa txartel txiki batekin egiten zen eta jende guztia zegoen prest laguntzeko: neskek egiten zuten hori. Kontrola eramaten zen eta pagia jasotzen zuten herri guztietatik. Lan gogorra izaten zen: 600 dantzari eta 200 txistulari zuen Kezkak. Toki askotara joaten ziren: jai egun baten, esaterako, lau tokira, lau autobusekin (Oñati, Arrate, Abadiño...).



1965. Revista Eibar-ek bere azala eskaini zion I. Euskal Jaiari.

Horrela gainaztertzen dute azken urteok

Fernando Abanzabalegik eta Mariano Lukek

1986-87an sartu zen Fernando laguntzera, gurasoek konbokatutako batzar baten ondoren. Marianok aurten 18 urte beteko ditu. Irailean hasten ziren biltzen, bilera oso luzeetan (goizeko 01.00ak arte), Joseba-eta Deportiboko tabernan zirela. Lan neketsuena soziedadeetakoei konbenzitzen izaten zen. Lehenengo gutuna bidaltzen zitzairen, 2-3 hilabete lehenago. Batzuk diruz laguntzen zuten eta beste batzuk bazkariekin. 200.000 pezeta inguru dendetatik jasotzen zen, postula-ziotik aparte, "Mitxelenak lan hori egiteari laga zion arte". Batzordea txikitzen joan zen: Fernando, Sosola, Leire, Igor, Idoia eta Mariano geratu ziren. Idoiak dantza taldeena lotzen zuen. Orain dela 17 urte ekarri zuten Benito Lertxundi berrira, Mariano horrela batzordera erakarrituz; oriotarra gurean izan zen orain dela zazpi urte ere. Karroza gabeko lehen urtea orain dela 18 urte izan zen. Ordura arte, ikastetxe bakoitzak egiten zuen bere karroza: orain dela 20 urte, esaterako, 25.000 pezeta eskaintzen zitzairen karrozak egitearren. Soldadutzaren aurkakoa egin zuten Marianorekin. Ganadua-eta ekartzeko, aseguruak egin behar ziren; bitarteko lanetan jarduten zuen Fernandok. Karrozen artean, kartzela, antzinako Eibar (eskopeta lantzen, urdinez jantzita), plaza modukoa, baserria, eguneko gaia... egiten zituzten. Hiru aste-buruko jaiak izaten ziren orduko haiek.

Orain dela 10 urte hasi zen Kezka Ezpalak ekartzen, aurten zapatuan izango dena. Herri-bazkaria orduan bakoitzak bere etxetik ekarritakoarekin ere egin zen, Josu Garatek bere kantuekin giroa alaitzen zuen bitartean. Herri-afaria karpan hasi zen egiten. Artisauekin Igor Unanuek egin zuen lan, gero Iratxek. Ahalegin ekonomiko handia da Azokari eustea eta jendea dabil inguruan laguntzen. Halako batean, Klub Deportiboak diru gehiago ipini behar izan zuen karpa ekarri eta catering-a erabiltzeko. Orain dela hiru urte beste bide bat hartu zen, Iñaki Osoro eta Javi Escuderokin egindako bileren ondoren. Angel Treviñok ekonomia arloko kontuak eramaten hasi zen bitartean. Hausnarketa sakona eginda, soziedadeak berreskuratu dira; euren inplikazioa lortzea zen helburua eta, horrela ere, jendeari afaria eta bazkaria dexente merkeago irtetzen zaio, modu horretan parte-hartzea era nabarmenean bultzatuz. Azken urtean, 15 soziedade izan dira laguntzen; aurten hamarna soziedade lortzen ahalegindu dira egun bakoitzeko (20 elkarte). Jende gaztearen falta igartzen dute batzordean. Eta dimentsio handia hartu du Euskal Jaiak, kantu-afaria gorenera eramanda. Orain dela hiru urtera arte 40 bat laguntzaile izan dituzte, afaria eta bazkaria egiten dutenetik behintzat. Azken bietan 70en bueltan ibili dira eta aurten 100 baino gehiago izango dira.

Kezkako dantzen eboluzioa

Oier Araolazarekin

Antolaketa ardua eta parte-hartzea 1990. inguruan hartu zuen Araolazak, 25. urteurrenaren bueltan. 1978-79an Sarasketaren eta belaunaldi gazteen arteko talka egon zen eta harek zuzendaritza laga zuen: molde zaharra vs guztiek ahotsa eta botoa, publikoa vs pribatua, politika ere tartean zelarik. Gazte batzuk geratu ziren Kezka izenarekin, Deportiboaren barruan eta Amalur formalki hasi zen funtzionatzen. Kezka ume eta materialik gabe geratu zen; baina dinamika hartzen joan zen, erropak-eta berreginez.

1986an Udalak Musika Eskola egitea erabaki zuen, suhiltzaileak zeuden tokian. Han entsaiatzen zuen Kezka, goiko gimnasioan. Handik kanporatuta, urte latzak pasa zituzten, AYAr sartu arte, 1997an. Bi urte egon ziren lokalik gabe: Kultureko antzokitoki aldapatsuan ibili ziren, Institutoko eta San Andres ikastetxeko patioetan, baita Amañako lokal parrokiarekin. 1988an lokala hartu zuten Aurreran, alokatu eta berriztatu ondoren. Oso garestia irtetzen zitzaizkien; horretarako, Deporren kafeak zerbitzen ibili ziren abuztuan.


Jon Lopez de Gereñu "Piti", Iñigo Gerra eta Alberto Alkoba izan ziren hura zuzentzen, egunean egunekoa egiten behintzat. 25. urteurrenarekin eztanda egin zuen horrek; baina, hala ere, Euskal Jaia antolatzen jarraitu zuten, kanpotik talde mordoa ekarriz. Pablo Uribeberriak hartu zuen bi urterako konpromisoa eta, 1990-91etik aurrera, Kezkaren ardua Aresatz Usobiagak, Araolazak eta beste batzuk hartu zuten: Euskal Jaia alde batetik; eurak, bestetik. Gurasoak ere tartean zirela.

Euskal Jaia indarra galtzen joan zen, bere funtzioa beteta. 1990. a okerrera izan zen, bizkarra eman zitzaiolako. Hor Fernando Abanzabalegi sartu zen, bizirik eusteko. 2004-2005ean proposamena egin zen, dantzaren atal bat antolatzeko. Araolaza 19 urterekin zuzendari ipini eta modelo aldaketa proposatu zen. Dantzari Eguna Santa Kruzi egindako omenalditik dator: hasieran urrian egiten zen, eta gero aldatu zen maiatzera. Biak batera eginda, urte baten jarraipenik apenas izan zuen. Horregatik aldatu zuten data. Horrez

gain, inbertsioak egin ziren erropetan eta, San Juan programaren barruan sartuta, abantailak lortu zituzten soinu-eta.


Aldaketarekin helduen jaialdia bihurtu zuten. Haurrak desagertuta ere, jarraituko dute umeak ekartzen. 25. urteurrenean nagusiak izan baziren hor, 1991n berriro ere umeak ekarri zituzten. Baina azkenean horrekin apurtu zuten: "Umeak txangoak egiten dituzte, baina ez dute dantza aldetik besterik erakusten. Umeek bere tokia izan zuten 60. hamarkadan: helduekin ezin zena egin zitekeen: ikurrina egin, kartzela muntatu. 2000. hamarkadan horrek ez du zentzurik eta dantzari helduak erreferentzia izango dira umeen jardueran". Tematikokoak prestatzen hasi ziren, dantzako atalak erakusteko: dibertsitatea eskainiz diskurtsoan, baina jaialdi berdinari jarraituta. "Ikuspegi sinplista eta mugak apurtzen zituzten horrela: euskal kulturari buruzko galderak eginez, euskal dantzaren inguruko mitoak apurtuta. Europako mendebaldean muga politikoak ez dira kulturak. Zerk egiten du dantza bat euskalduna izatea? Fandangoa lehen ez zen, orain bai; zortzikoa Londresko batek dantza dezake. Jakin-mina sortzen da: ez da txanka-zaldia-erregea". Domekako eskema horretatik aparte, Argia dantza taldeko Zortziko ikuskizuna ekarri zuten Ipuruia kiroldegira. Astelena frontoian izan ziren Kondarian eta Pas de Basque ikuskizunak. Andra Mari eta Goizalde taldeak ere izan dira hemen.

Azken 15 urteotan erromeria zelan indartu den azpimarratzen dute, plaza beteta egoten baita. Goizez ikuslegoari begirakoa arratsaldetan gozatzeko aukera bihurtzen da. Patxi Perezek jakin izan du erromeria herrira jaisten, Europatik ekarritako dantzaldi gidatua eskainita (dantza-piko). Jendeak ez badaki ere, orain ez da gertatzen 90. hasieran gertatzen zena Tapia eta Leturia edo Alaitz eta Maiderekin: orduan Larrain-dantza bakarrik dantzatzen zen. Parte-hartzearen gozamena bizi da orain, bikoitza. Gaur egun 150 ikasle dituzte Kezkan. Eta Euskal Jaia prestatzeko dantza ikastaroan, 50-60 heldu dihardute parte hartzen. Nagusien taldean, bestalde, 30 dantzaridaude.




1998ko kartela.

Azken urteotako
KARTELAK



1999ko kartela.



2000ko kartela.



2001eko kartela.


Euskal Jaia Eibarren - 50 urte



2003ko kartela.




2006ko kartela.



2010eko kartela.

Azken urteotako
KARTELAK



2011ko kartela.



2002ko kartela.

2005eko kartela.



Euskal Jaia Eibarren - **50 urte**



50. Euskal Jaia (2015eko egitaraua)

– Apirilaren 14tik maiatzaren 26ra

Larrain dantza ikastaroa, martitzenetan 19.30etatik 21.00etara

– Maiatzaren 27an, eguaztena

50. urteurreneko dokumentalaren eta liburuaren aurkezpena:

dokumentala proiektatuko da, liburua aurkeztuko da eta solasalditoxa izateko aukera izango da dokumentalean agertzen den jendearekin. Aurtengo egitaraua ere konpartituko da zehaztasun guztiekin.

Coliseoan, 19:00etan.

– Maiatzaren 29an, barixakua

Kalian jolasian: Astixako begiraleek 5, 6 eta 7 urteko umeentzako jolasak dinamizatuko dituzte. Umeek ikastetxeetan jolas-orduetan ikasi dituzten jolasak plazaratzen dira egun horretan. Hamar begirale egongo dira, bost multzotan banatuta. Bikote bakoitzak bere inguruko umeak jolastera gonbidatuko ditu, eta jolas desberdinak landuko dituzte. Udaleko Euskara sailaren eskutik

Bizikleta Plazan, 17.00etatik 19.00etara.

Musika jaialdia: Makala jazzfunkband, Espaloian, Hesian eta eMePebo5t.

Untzaga plazan, 20.00etatik aurrera.

Euria egingo balu, karpan izango litzateke festibala.

– Maiatzaren 30ean, zapatua

Artisau eta baserritarren azoka: Eibarko eta kanpoko artisauen azoka eta erakustaldiak. Eta Eibarko baserritarren azoka.

Toribio Etxebarria kalean, 10.00etatik aurrera.

Herri-kirolak eta bertsolariak: Herri kirolariak, eskoletako ikasleak eta kaletarren arteko lehia ikusgarria izango dugu aurten azokaren

erdigunean. Sekula baino ekimen partehartzaileagoa izango da zalantzarik gabe. Harri jasotzea, soka-tira, lastoa jaso, ingudea jaso rta lastoa bota egingo dira.

Toribio Etxebarria kalean, 12:00etatik aurrera, azoka erdian.

Goiz osoan zehar talopostua egongo da, AEKren eskutik.

Eta egun osoan zehar kale animazioa.

Ezpalak nazioarteko jaialdia: Soka-dantzak eta ingurutxoak, Lapurdiko Lekorne herriko Urtsuko xoriak taldea, Iruñeko Duguna taldea, Arabako Larrea herriko dantzariak, Bizkaiko Garai herriko dantzariak, Turkiako Ankarako Baskent Unibertsitateko dantza-taldea eta Eibarko Kezka dantza-taldearekin.

Untzagan, 19.00etan.

Euria egingo balu, Astelena frontoian izango litzateke jaialdia.

Kantu afaria: Elkarte gastronomikoen eskutik, bertako baserrietako produktuekin. Kantuak taldeka eta, jarraian, erromeria Jainaga eta Narbaizarekin.

Untzagako karpan, 21.30etan.

– Maiatzaren 31n, domeka

Euskal Jai eguna: 12.00etan Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagaraino. 12.30ean Eibarko aspaldiko eta gaurko dantzarien dantza-emanaldia Untzagan. 13.00etatik 14.00etara, erromeria Jainaga eta Narbaizarekin.

Herri-bazkaria: Untzagako karpan, 14.30etan.

Erromeria Patxi eta Konpaniarekin, 17.00etan.

Larrain-dantza popularra Untzaga plazan, 19.00etan.

Larrain-dantza popularra Deportiboaren parean, 20.00etan.

Euria egingo balu, Astelena frontoian izango lirateke ekitaldiak.

50 urte. Erraz idazten da. 10 segundu behar dira idazteko. Baina zenbat bizipen, momentu onak gehienak, zenbat jende pasatu den antolakuntzatik denbora horretan. Denen ekarpena, ezinbestekoa bezain garrantzitsua.

Ez dakit esaten zerk bultzatu duen bakoitza ahalegin hori egitera; norberak izango ditu bere arrazoiak. Badakit ni zerk bultzatzen nauen. Badakit denbora luzez ahalegin horri heltzeko arrazoi sakonak, sentimentu sakonak, egon behar direla tarteko.

Konbentzimendu osoz esaten dut 50 urte horietatik, atsedetik gabe, egoera txarretan ere, pertsona batek erdia baino gehiago antolakuntzan eman baditu, sentimendu sakonak dituela. Bere herria, kultura eta hizkuntza maite dituela.

Euskal Jaia aipatzen dugunean izen propio bat agertzen da ondoan ezinbestez, merezimendu osoz: **FERNANDO ABANZABALEGI**, hain zuzen ere. 28 urte eman ditu antolakuntzan, dena emanda, nekaezina, mugagabeko eskuzabaltasunarekin...

Zure omenez, Fernando: esker mila urte luze hauetan erakutsitako guztiagatik, helburu berdinarekin partekatu dugun guztiagatik, proiektuari bizirik eusteagatik... eta etorkizunean oraindik ere konpartituko dugunagatik.

Ohorea eta plazerra izan da, izaten ari da eta izango da zurekin antolakuntzan aritzea. Mila esker bihotzez!!

Mariano Luke

Liburuan eta Dokumentalean

kolaboratu dutenei

Eskerrak emanez:

- Abanzabalegi, Fernando
- Abanzabalegi, Inazio
- Agirresarobe, Foto
- Alkoba, Alberto
- Aranberri “Amatiño”, Luis A.
- Aranberri, Maite
- Araolaza, Oier
- Arrate Kultur Elkartea
- Azpiri, Begoña
- Calleja, Jose Luis
- El Correo Español - El Pueblo Vasco (Bilboko delegazioa)
- El Diario Vasco (Dokumentazioa)
- ...eta kitto! Euskara Elkartea
- Fernandez, Javier
- Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Juan San Martin Fondoa
- Hernandez, Silbia
- Iturbe, Leire
- Kezka Dantza Taldea
- Koldo Mitxelena Zentroa
- Lacuesta, Foto
- Larrañaga, Arantza
- Loiola, Felipe
- Lopez de Gereñu “Piti”, Jon
- Luke, Mariano
- Mallagarai, Ana
- Narbaiza, Maite
- Olañeta, Margari
- Perez Sarasketa, Jose Luis
- Plazaola, Foto
- Retolaza, Fernando
- Revista Eibar
- Ruiz, Yolanda (Eibarko Udal Artxiboa)
- Sarasua, Asier
- Uriguen, Arantza
- Valderrey, Jose
- Zugasti, Iñaki



1965. Plazaola



Eibarko Klub Deportiboa

